



Haur soldaduen gizarteratzea: Nigeriako Boko Haram kasua

Indarkeriaren aurkako
Alternatibak Proiektua aztergai

Libe De La Puente Ruiz

Tutoría / Tutorea
Itziar Mujika Chao

Esta publicación ha recibido financiación de aLankidetzta - Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.
Argitalpen honek eLankidetzta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziazioa jaso du.



Máster Oficial en Desarrollo y Cooperación Internacional / Garapena eta Nazioarteko Lankidetzta Master Ofiziala

Trabajo Fin de Máster / Master Amaierako Lana
Curso 2021/2022 Ikasturte

Haur soldaduen gizarteratzea: Nigeriako Boko Haram kasua. Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua aztergai
Libe De La Puente Ruiz

Tutoría / Tutorea: Itziar Mujika Chao

Hegoa. Trabajos Fin de Máster, n.º 83 / Master Amaierako Lanak, 83. zkia.

Fecha de publicación: noviembre de 2022
Argitalpen data: 2022ko azaroa



Hegoa
Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional
Nazioarteko Lankidetzta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua

www.hegoa.ehu.eus
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Edificio Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: (34) 94 601 70 91

UPV/EHU. Biblioteca del Campus de Álava / Arabako Kampuseko Liburutegia
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: (34) 945 01 42 87

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Plaza Elhuyar, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: (34) 943 01 74 64



Esta obra está bajo una Licencia Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)

Agiri hau Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0)
Creative Commons-en lizentziapean dago.

LABURDURAK.

AVP Alternatives to Violence Project

CEDAW Emakumeen Kontrako Diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Hitzarmena

CJTF Zeregin Bateratu Zibileko Indarra

DDR Armagabetze, Desmobilizazio eta Gizarteratze Prozesua

EB Europar Batasuna

GENZ Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea

GKE Gobernu Kanpoko Erakundea

NBE Nazio Batuen Erakundea

PNUD Garapenerako Nazio Batuen Programa

UNCHR Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandataritza

UNFPA Populazio Gaietako Nazio Batuen Funtsa

UNICEF Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa

PNUD Garapenerako Nazio Batuen Programa

AURKIBIDEA.

1	Sarrera	1
2	Haur soldaduak.....	3
2.1	Hurbilketa kontzeptuala	3
2.2	Hurbilketa juridikoa	4
2.3	Genero dinamikak aztergai: haur soldadu neskak	7
3	Boko Haram eta haur soldaduak	10
3.1	Boko Haram taldearen testuingurua.....	11
3.2	Taldeak adin txikikoez egiten duen erabilera	14
3.3	Genero dinamikak aztergai: haur soldadu neskak Boko Haramen	17
3.4	Boko Harametik ateratzen diren haurren egoera	19
3.4.1	<i>Haurrak babesteko marko juridikoa Nigerian.....</i>	<i>20</i>
3.4.2	<i>Nigeriako gobernuak emandako erantzun operazionala.....</i>	<i>21</i>
4	Boko Harametik ateratzen diren haurren gizarteratzea	24
4.1	DDR programak.....	24
4.1.1	<i>Hurbilketa kontzeptuala: DDR Nigerian.....</i>	<i>24</i>
4.1.2	<i>DDR programek aurkezten dituzten zailtasun praktikoak.....</i>	<i>25</i>
4.1.3	<i>Gizarteratze komunitarioa.....</i>	<i>27</i>
4.2	AVP programak	31
4.2.1	<i>Hurbilketa kontzeptuala.....</i>	<i>33</i>
4.2.2	<i>AVP-aren eraginkortasuna Nigerian.....</i>	<i>35</i>
5	Ondorioak.....	42
6	Bibliografia	46

1 Sarrera

Gatazka armatuak, zalantzarik gabe, egungo errealitate ankerrenetarikoen aurpegi dira eta dituen gaitzespen ororen artean, ziurrenik, haurren osotasuna kolokan jartzen dituztenak dira doilorrenak: egun, mundu osoan, 300.000 haur-soldadu¹ gatazka armatuen parte izatera behartuta daude giza garapen duinerako aukera lapurtzen eta oinarrizko eskubideak urratzen zaizkielarik (UNICEF, 2020).

Horri, Estatuak, bere osotasunean, interes kontrajarrien arteko tentsioetan murgiltzen direla eta, botere tira-bira horien baitan, nazioarte mailan biztanleria zibilak pairatzen dituen inpaktuak alde batera uzten direla gehitu behar diogu. Gainera, gerraosteko berreraikitze-estrategiak, batetik, epe laburreko emaitza ekonomiko eta politikoetan baino fokuratu direla eta bestetik, herrialdea osatzen duten komunitateek bake-eraikuntza prozesuetan zeresanik ez dutela adieraztea garrantzitsua da. Horrenbestez, gizarte- berreraikitzearen osagai sozialak alde batera uzten dira. Honek, gerraosteko eremuetan gero eta gatazka zein mendeku ziklo gehiago agertzea suposatzen du, mahaiganeratzuz, bakea berrezartzeko erabili diren estrategien norabidea aproposa izan den edo ez.

Estrategia “aproposenak” aurkitzeko bidean, Garapenerako Nazio Batuen Programak, 2012. urtean, «Blame It on the War? The Gender Dimensions of Violence in Disarmament, Demobilization and Reintegration» txostena argitaratu zuen. Haren seigarren gomendioan honakoa iruzkindu zen: «komunitatean eta, oro har, gizartean indarkeria babesten duten arauak, erakundeak eta jarrerak (indarkeriazkoak) eraldatzea epe luzeko prozesua da. Armagabetze, desmobilizazio eta gizarteratze programa formala amaitu ostean, borondate politikoak eta finantza-baliabideek aurrera jarraitu behar dute indarkeriaren erresilientzia indartzeko xedez. Beraz, ezinbestekoa da programa horien planifikatzaileak Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua [...] bezalako garapen-programekin koordinatzea, programa hauek, epe luzeagoan mantendu daitezkeelako» (PNUD, 2012: 51).

Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua, gatazkari indarkeria fisikoaren, psikikoaren edo emozionalaren bidez aurre egiteko modu alternatiboak proposatzen dituen tailer multzo bat da. Hau, 1975ean New Yorkeko Greenhaven espetxean garatzen hasi zen bertako preso talde batek, bortxa fisikoa, batez ere gazteen artekoa, murrizteko helburuz programa bat proposatu zenean. Proiektu honen funtsa, laburtuz, «indarkeriarik gabeko benetako komunitatearen» garrantzia azpimarratzea da (Shuford, 2009).

¹ Hemen, haur soldaduen neurketaren inguruko hausnarketa txiki bat egitea beharrezkoa da. Dakigunez, neurtzea, informazioa antzeman eta interpretatzen duten metodoen bidez, zenbaki bat fenomeno batekin uztartzean datza. Egia da, ordea, haur soldaduen fenomeno bezalako errealitate batek zail egiten duela zifra zehatzei buruz hitz egitea. Gainera, haur-soldaduak zifra orokor batera sinplifikatzea, esku artean dugun fenomenoaren konplexutasuna lausotzea dakar. Beraz, lan honetan zifrak ikerketa objektura hurbiltzen laguntzeko tresna izango dira, hauek, errealitatea ez direla eta esperientziak espezifikotasunak dituztela azpimarratuta, izan ere, haur bakoitzaren sozializazio eta gizarteratze prozesuak berezitasunak izango ditu beti.

2018. urtean, larritasun handiko bederatzi gatazka armatu identifikatu ziren. Hauek Libian, Malin, Somalian, Hegoaldeko Sudanen, Afganistanen, Iraken, Sirian, Yemenen eta Txad Aintzirako Erregioan kokatzen ziren (Escola de Cultura de Pau, 2019: 29). Azkenekoa, lan honetan aztergai izango dugun gatazka armatua da, zeinetan Nigeriako ejerzituak eta Boko Haram talde paramilitarraren insurgentzia terroristak aurre egiten duten. Honek, eragina izan du Borno eskualdeko biztanleen segurtasunean, eta, bereziki, eskualdeko ekonomian, zeina jadanik kaltetuta zegoen Txad Lakuaren pixkanakako desagerpenagatik (Lenoble eta Ahmed, 2021: 3). Pobrezia instituzional eta azpiegitura publikoen ausentzia testuinguru hau da, alegia, aztertuko dugun kasua. Batetik, Nigeriako ipar-ekialdeko gatazka armatua intentsio handikoa izaten jarraitzen duelako (Escola de Cultura de Pau, 2021: 13); bestetik, umeen erabileraz aprobeztatzen den gatazka armatuetako bat delako (Nazio Batuen S/2020/652 txostena, 2020) eta azkenik, adin txikikiko haur soldaduen gizarteratzea bideratzeko finantzatu diren programak eskasak direlako, kasu gehienetan, umeen legez kanpoko atxiloketak bideratzen dituztelako (Nazioarteko Amnistia, 2019).

Hala, lan honen helburu nagusia Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektuak Boko Haram talde paramilitarretik ateratzen diren haur soldaduen gizarteratze prozesuan lagun dezakeen aztertzea izango da.

Botere eraldaketaren eta konexioaren bidezko komunitate-eraikuntzaren markoan, Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua bezalako tresnek haur soldaduen gizarteratze efektiboagoa bultzatzen dutenaren hipotesira ailegatzeko, oro har, bigarren mailako iturriak erabili dira bai Nigeriako iparraldean kokatzen den gatazka armatuaren inguruko datuen analisia egiteko baita haur soldaduen gizarteratzearen azterketa egiteko. Bestalde, Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektuaren ibilbidea, ezaugarriak, garapena eta baliozkotasuna aztertze aldera, metodologia kualitatiboa erabili da; dokumentuetan, ikerketa espezifikoetan, argitalpenetan, gidallerroetan, informeetan eta manualetan oinarrituta. Aipatzekoa da azterketa hau, oro har, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea osatzen duten nazioarteko arauak eta ikerketek baliatu dela.

Zentzu honetan, lana hiru atal nagusitan banatu da. Hasteko, lan osoan zehar oinarri izango dugun haur soldaduen marko teorikoa dugu. Bigarren atala, duela hamarkada bat baino gehiagotik hona, Nigeriako ipar-ekialdean ematen ari den gatazka armatuan murgilduko da, zeinetan Nigeriako ejerzituak eta aipatutako Boko Haram taldearen insurgentzia terroristak aurre egiten duten. Errealitate horretatik abiatuta, Nigeriako gobernuak eman duen erantzun operazionala aztertuko da haur soldaduen gizarteratzea emateko markoa egokia den edo ez ondorioztatzeko. Azkenik, XX. mendearen amaieran planteatzen eta praktikan jartzen hasten den bakeari eta indarkeriari buruzko proposamen bat aztertuko dugu: hezkuntza popularretik hazitako Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua. Hala, aurreko ataletan aztertutako Nigeria iparraldeko testuinguruan horrek izan dezakeen aplikagarritasuna landuko da.

2 Haur soldaduak

Oinarrizko eskubideak «pertsona orori aitortzen zaizkion eskubideak dira. Norberaren estatusa, sexua, etnia, herritartasuna, erlijioa ... edozein izanda ere, elkarrarekiko erlazioa duten eta zatiezinak zein independenteak direnak» (Nazio Batuak, 1948) dira. Ildo horretan, Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1989. urtean *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena* aldarrikatu zuen.

Hitzarmen hau, haur guztiek eduki beharko lituzketen eskubideen adierazpen osatua da, ordea, egun eta munduko leku askotan, haurren sozializazioa lan-esplotazioaren, tratu txarren, eskola-absentismoaren eta sexu abusuen markoan kokatzen dugu oraindik. Azkeneko urteetan, haurren oinarrizko eskubideei dagokienez, aipatu ditugun guztietatik, nazioarteko komunitatearen arreta deitu duten bi gai identifika ditzakegu ororen gainetik. Alde batetik, haurren salmenta, prostituzioa eta pornografian egiten den hauen erabilera. Bestetik, gatazka armatuetan dagoen haurren parte hartzea.

Lan honen ikerketa objektuari eusteko helburuz, bigarren problematikan fokuratuko gara. Horretarako, atalari, haur soldaduen definizioarekin hasiera emango diogu. Ondoren, fenomeno honen genero inplikazioak aztertuko ditugu eta azkenik, nazioarteko testuingurura salto egingo dugu marko juridikoa aztertzeko.

2.1 Hurbilketa kontzeptuala

Haur soldaduen fenomenoak ez zen 80eko hamarkadara arte ikerketa objektu bihurtu (Reyes, 2017: 43). Momentura arte, gatazka armatuetan zegoen haurren presentzia estatistika bat izatera mugatzen zen eta haurrek gerran zuten parte hartzea gertaera isolatu gisa aurkezten zen (Bácares, 2017: 52). Beraz, haur soldaduen konfigurazio kontzeptuala ez zen XX. mendera arte ezarri.

«Haur» definizioak desadostasun asko sortu ditu izaera aldakorra duelako, izan ere, eremu geografikoaren, kulturaren, erlijioaren, egitura sozioekonomikoaren ... arabera eraikitzen den kontzeptu dinamikoa da (Moreno Mena, 1996: 63). Lan honek erabiliko duen «haur» adierak, bat egingo du aurretik aipatu dugun 1989ko *Haurren Eskubideen buruzko Hitzarmenaren* 1. artikularekin, zeinak honakoa dioen: «haurra da hemezortzi urte baino gutxiago dituen gizakia. Kanpoan geratuko dira legearen arabera adin-nagusitasuna lehenago lortu dutenak» (Nazio Batuak, 1989); hala bada, lan honek haurtzat jaio eta hemezortzi urte bete bitarteko edozein gizaki hartuko du. Beraz, «haur soldadutzat», 18 urtetik beherako edozein motatako indar armatu erregular edo irregular edo edozein gaitasunetako talde armatua osatzen duen oro hartuko dugu (Nazio Batuak, Pariseko Printzipioak, 2007).

Testuinguru honetan beharrezkoa da azpimarratzea ere haur soldadu bat ez dela soilik arma bidez gatazka beliko batean parte hartzen duen adin txikikoa; haur soldaduek hainbat funtzio bete ditzaketelako gatazka armatu batek eraikitzen duen etsaitasunezko inguruan. Zuzenbideak haur soldaduen parte hartzea zuzenekoa, aktiboa edo zeharkakoa izan

daitekeela interpretatzen du (Arellano, 2009: 51). Zuzenekoa, borrokan parte hartzeari egiten dio erreferentzia; aktiboak, borrokarekin erlazioa duten jardueri -adibidez: espioitzan, sabotajea, postan ... aritzeari- eta zeharkakoak, talde armatuari babes eskaintzen dizkion jardueri -adibidez: material biltzaile, sukaldari, guardia ... lanetan aritzeari-.

Edonola ere, esku artean dugun azterketak interpretazio zabalago batez baliatuko da; ulertuz, gatazka armatu baten markoan egiten den adin txikikoaren erabilera, edozein izanda ere, haur-soldadu kontsideratzeko nahikoa dela. Izan ere, ez al da gatazka armatuaren biktima zuzena talde armatu batek bahitzen duen haurra? Edo soldaduek bortxatzen duten adin txikikoa? Azken finean, haur horien segurtasuna kaltetzen duten eta haien eskubide oinarritzkoenak behin eta berriz urratzen dituzten jarduerak anitzak izan daitezke, nahiz eta horiek borrokarekin zer ikusirik ez izan. Aurreko interpretazioa, Haur Soldatuen Erabilera Geldiarazteko Koalizioak aldarrikatzen du ere (Haur Soldatuen Erabilera Geldiarazteko Koalizioa, 2004: 6).

Amaitzeko, ezin dugu ahaztu bai «haur» baita «haur soldadu» adierak globalak direla, hots, ez dutela sexuarekiko edo baldintzarekiko ezberdintasunik egiten. Lanean zehar, ordea, adin txikiko nesken errealitateari arreta jarriko diogu generoak desberdintasun nabarmenak eragiten baitizkio gatazka armatuetan haur soldaduen parte hartzeari (Arellano, 2009: 50).

2.2 Hurbilketa juridikoa

XXI. mendeak, egoera etsigarriak ekarri ditu haurren giza eskubideen babesari dagokionez: egunera arte, 60 herrialdek baino gehiagok bizi izan dituzte nazioarteko eta nazioartekoak ez diren gatazka armatuak, momenturo izaera konplexuagoa garatzen dutenak eta etengabe eboluzionatzen ari direnak (Escola de Cultura de Pau, 2021: 21). Gainera, azken urteetako gatazka armatuen ezaugarri nagusietako adin txikikoen erabilera da (Reyes, 2017: 42) eta horrek, zalantzarik gabe, oztipoak aurkezten ditu haurrak babesterako orduan.

Adin txikikoak, gerraren ondorioak modu ezberdinean sufritzen dituzte euren adinaren kalteberatasunagatik. Hala, Nazioarteko Zuzenbideak egoera honi erantzuna emateko betebeharra du; tamalez, nazioarteko komunitateak planteatutako araudiak nahikoak diren galdetzea guztiz zilegia da, izan ere, zein puntura arte haur-soldaduen fenomenoak kontrola dezakete legeek honen urtez-urteko areagotzea ikusirik?

Ez zen izan XIX. mendearen erdialdera arte, noiz haurrei babes berezia eskaintzeko ideia sortzen hasten den (Martos, 2014: 9) eta 1948an, *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala* onartu zen honakoa bilduz:

«25 artikulua. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, [...]. Amek eta haurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Hala, haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute».

Egun, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak eta Nazioarteko Zigor Zuzenbideak esku artean dugun fenomenoari erantzun global bat emateko helburuz, zehapen garrantzitsuak bildu dituzte. Goaz, bada, hiru zuzenbide hauek aztertzea.

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren testuinguruan, 1949ko abuztuan onartutako *Genevako Konbentzioa* eta 1977ko Konbentzioaren *I eta II Protokolo gehigarriak* aurkitzen ditugu. Adin txikikoak pertsona zaurgarriak direla ulertuta, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak babes berezia eskualdatu nahi izan zien (Villasante, 2011: 217), hala, Protokolo gehigarri horietan, lehen aldiz, adin txikikoak gatazka armatuan parte hartzeko helburuarekin errekrutatzekeo debeku espezifikoak ezarri zen (Reyes, 2017: 46).

Egia da protokolo bakoitzean aurkitzen dugun babes-estandarra desberdina dela; izan ere, Konbentzioaren *I Protokoloak* gatazka armatuetan adin txikikoen zuzeneko parte hartzea soilik debekatzen duen bitartean, *II Protokoloak* edozein parte-hartze mota debekatzen du, zuzeneko edo zeharkakoa izan. Hala ere, itun horietako bakoitzak arautzen duen babes-maila ez da zehatza, ez baitaude argi zuzeneko partaidetzatzat har daitezkeen jarduerak (Yuvaraj, 2016: 75).

Hemen, Israelgo Gorte Gorenak 2005ean emandako HCJ 769/02 epaia aipatu behar dugu. Kasua *targeted killings* izenez ezagutzen da eta horretan, gatazka armatuetan zuzeneko parte-hartzea osatzen duten jokabideak zeintzuk izan zitezkeen aztertu zen (Reyes, 2017: 47). Epaia 35. paragrafoan, Gorte Gorenak honako jarduera hauek aipatu zituen zuzeneko parte-hartze moduan: indar armatuentzako intelijentzia-informazioa biltzea, legez kanpoko borrokalariai garraiatzea, legez kanpoko borrokalariai armak erabiltzea edo haien erabilera gainbegiratzea. Paragrafo berean, legez kanpoko borrokalariai janaria edo medikamentuak saltzea edo horiek ekonomikoki finantzatzea bezalako jarduerak ezin direla gatazka armatuetan zuzeneko partaidetzatzat hartu adierazi zen. Ikus daiteke, beraz, zuzeneko parte-hartzearen inguruko zalantzak eta interpretazioak egon badaudela, besteak beste, arauak argiak ez direlako. Hala, jurisprudenziaz hornitu beharko da araudia bera.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideari dagokionez, giza eskubideei buruzko hainbat itunek osatzen dutela eta itun horiek, estatuei, giza eskubideak errespetatu eta bermatzeko betebeharrak ezartzen dizkietela (Salmón eta Blanco, 2012: 16) aipatu behar dugu.

Testuinguru honetan, 1989an, Nazio Batuen Batzar Orokorrak, azaroaren 2ko 44/25 Ebazpenaren bidez, lehenengo aipatu dugun *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena* aurkeztzen zaigu, zeinetan mundu osoko adin txikikoen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak biltzen diren. Onartze horrek, «inflexio-une bat ekarri zuen haurren tratamendu juridikoan, izan ere, arriskuan edo babesik gabe zeuden haur eta nerabeei buruzko legediaren ohiko ikuspegi babeszalea gainditu egin zen haurrak, giza eskubideen eta askatasun publikoen titular ukaezintzat jotzeko» (Villagrasa, 2015: 18).

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 38. eta 39. artikuluek, interes berezia dute lanean, izan ere, haur soldadu eta gatazka armatu kontzepzioak elkartzen dira. Alde batetik, 38. artikulua estatuek gatazka armatu batean haurren babesa eta zaintza ziurtatzeko betebeharra ezartzen du, hala ere, Hitzarmenak berak ez du adin txikikoen errekrutatzea debekatzeko, are gutxiago, 38. artikulua honakoa ezartzen duenean:

«38.2 artikulua. Estatu alderdiek ahal diren neurri guztiak hartuko dituzte oraindik 15 urte bete ez dituzten pertsonak gatazka armatuetan zuzenean parte hartuko ez dutela ziurtatzeko. 15-18 urte bitarteko haurrak errekrutatzen badira, estatu alderdiek ahaleginak egingo dituzten adin handiagoa duten pertsonak errekrutatzeke.

38.3 artikulua. Nazioarteko zuzenbide humanitarioak eratorritako betebeharrekin bat etorriz, gatazka armatuetan biztanleria zibila babesteari dagokionez, estatu alderdiek ahal duten neurri gehienak hartuko dituzte, gatazka armatu batek ukitutako haurren babesa eta zaintza ziurtatzeko».

Bestalde, honakoa ere ezartzen da:

«39 artikulua. Haurrak edozein abandonu, esplotazio edo abusuren biktima; tortura edo bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarriren biktima eta gatazka armatuetako biktima direnean, estatuek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte haurrek egoera fisikoa eta psikologikoa berreskura dezaten eta gizartera daitezen. Gizarteratze hori osasuna, norberarenganako errespetua eta haurren duintasuna suspertzen dituen giroan gauzatuko da».

Beraz, modu batean edo bestean, bai Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak baita Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak ere 15 – 18 urte bitarteko adin txikikoak errekrutatzeke atea irekitzen dute “zuzeneko parte-hartzearen” terminoa ez zehaztuz eta estatuen eskuetan utziz adin horietako haurrak ez errekrutatzeke “ahaleginak” egitea.

Ildo honetan, 2002. urtean, *Haurren Eskubideen Hautazko Protokoloa* indarrean sartu zen. Hau, aurrerapauso bat izan zen aurrekoekin alderatuz, besteak beste, erabateko moduan 18 urtetik beherako adin txikikoak gatazka armatuetan parte hartzeke debekua ezarri baitzuen.

Orain, Nazioarteko Zigor Zuzenbidera joko dugu. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak ez bezala, zeinak nazioarteko erantzukizuna estatuetan ezartzen duen giza eskubideen arloko betebeharrak urratzeagatik, Nazioarteko Zigor Zuzenbideak nazioarteko krimenak egikaritzeagatik erantzukizun indibiduala ezartzen du eta gatazka armatuetan modu aktiboan parte hartzeke haurrak errekrutatzea nazioarteko krimena da. Hala ezarri zuen Erromako Estatutuak:

«8.2 artikulua. Estatutu honek, gerra-krimenez jotzen du:

b) Nazioarteko zuzenbidearen markoan, nazioarteko gatazka armatuetan aplikatu daitezkeen legeen eta usadioen beste urraketa larri batzuk, hots, honako egintza hauetako edozein:

xxvi) 15 urtetik beherako haurrak indar armatu nazionaletan errekrutatzea edo lerrokatzea, edo gatazka armatuetan aktiboki parte hartzeko erabiltzea».

Hala bada, nazioarteko krimenez hartzeko hiru jokabide ezberdin eman daitezke: (i) errekrutatzea, (ii) lerrokatzea edo (iii) 15 urtetik beherako haurrak aktiboki gatazka armatuan erabiltzea, hemen, berriro ere, aurretik aipatu dugun arazo berdinarekin topatzen gara, ez baita parte-hartze aktiboa zer den definitzen.

Azkenik, 1997ko Cabo Berdeko eta 2007ko Pariseko Printzipioak aipatzea interesgarria litzateke. Lehenengoaren helburua, haur soldaduen gaian adituak biltzea eta haurren errekrutamendua prebenitzeko eta hauen desmobilizazioa eta gizarteratzea bideratzeko estrategiak garatzea izan zen. Pariseko Printzipioen helburua haur soldaduen gizarteratzea hobetzeko eta babesteko gomendioak luzatzea da.

2.3 Genero dinamikak aztergai: haur soldadu neskek

Historikoki, emakumeak ez dira euren berezitasunean islatuak izan gizonak emakumea barne hartzen duenaren ideian babestuz (Cavarero, 1997: 52). Horrek, batetik, sexu maskulinoa gizakiaren abstraktu unibertsal gisa irudikatzeak eta bestetik, emakumea errealitate horretatik definitutako objektu gisa irudikatzeak ahalbidetu du. Eta errealitate aldendu honetan datza genero-ikuspegia gatazka armatu zein gerraosteko bakea berrezartzeko prozesuetan txertatzeko beharra; bai ikuspegi feminista batetik egindako narratibaren garrantzia azpimarratzeko, baita errealitateak zein identitateak ahots konbentzional batetik idazteari uzteko ere. Izan ere, egun, haur soldadu nesken narratiba ikusezina izaten jarraitzen du nahiz eta haur soldaduen %40a, gutxienez, neskek diren (Merino, 2018: 44).

Lan honek, desberdintasun sexualaren eraikuntza soziokulturala eta desberdintasun horretan oinarritutako antolaketa eta hierarkizazio sozialeko sistema kontuan hartzeko ahaleginetan, generoa, analisi- kategorio gisa erabiliko du adin txikiko nesken esperientziak, beharrek eta eskakizunek eskatzen duten espazioa azpimarratzeko asmotan. Horrenbestez, atal honek, lehenik, haur soldadu neskek talde armatuetan bete ohi dituzten rola mahaiganeratuko ditu.

Hurbilketa kontzeptualean aipatutako funtzioez gain, neskei bestelako zeregin espezifikoak esleitzen zaizkie ere, zeintzuek emakume izatearekin zerikusirik handia duten zaintza- eta ugalketa-rolak erantzuteagatik, adibidez, janari prestatzeko, arropa eta kanpamentuen garbiketaz, zauritu eta gaixoen zaintzaz... arduratzen dira (Brett eta Specht, 2004: 108). Esan genezake, beraz, patriarkatua gatazkaren dinamiketan artikulatu dela eta zapalkuntza-sistema gisa, talde armatuen egituretara moldatu dela: tradizionalki femeninoak izan diren rola sustatuz, zeregin ezberdinak estereotipoen arabera banatuz eta, indarkeria

edo jazarpena erabiliz, etxe-, ugalketa- eta sexu-kontraprestazioak lortuz. Hala, borrokatzearen eta hiltzearen kargu uzten badituzte ere, talde armatuen markoan, nesken sexu-objetibizazio argi batekin aurkitzen gara.

Nazio Batuen arabera (2014: 206), talde armatuetan neskek eta emakumeek hiru rol nagusi bete ditzakete; (i) talde armatua babesten dutenak eta ekonomikoki zein sozialki talde armatuaren mende daudenak, hala nola sukaldariak, garbitzaileak, erizainak, administratzaileak, garraiolariak, itzultzaileak edo sexu-esplotaziorako erabiltzen diren neskak; (ii) borrokatzen dutenak, giza ezkutu gisa erabiltzen direnak, arma leherkorrak edo meategietako lurren ikuskatzaileak direnak eta (iii) talde armatua osatzen duten kideekiko dependentzia dutenak, hau da, borrokalarien familia direnak.

Nahiz eta kasu batzuetan neskek talde matxinoekin bat egiten duten botere eta berdintasun bila, euren komunitate patriarkaletan senti ezin dezaketen kidetasun eta kontrol bila, errespetu eta ahalduntze bila (Merino, 2018: 48)...; talde armatuen markoan, sexu-objetibizazio argi batekin topatzen dira. Izan ere, testuinguru horietan, nesken funtzio sexualak guztiz errotuta daude (Martos, 2014: 53).

Haur soldadu nesken funtzio sexualak errotuta daudela esaten dugunean, honako errealtateei egiten diegu erreferentzia: 2014. urtean zehar, Afrika Erdiko Errepublikako gatazka armatuan, indarkeria sexualeko 2.527 kasu dokumentatu ziren. Kolonbian, 1985 eta 2014 bitartean, 7.353 kasu. Iraken, adibidez, gizartea menderatzeko tresna gisa erabili da indarkeria sexuala, erregistroek, 1.500 zibil esklabotza sexualera bultzatu direla adierazten dute. Are gehiago, Malin, Myanmarren, Somalian, Hegoaldeko Sudanen, Sirian, Yemenen ... eman ziren edo ematen ari diren gatazka armatuetan, emakumeak eta neskak objektu sexual moduan erabiliak direnaren praktikak ematen dira (Nazio Batuen S/2015/203 txostena, 2015).

Tamalez, adierazitako indarkeria- eta sexu-esklabotzari, behartutako ezkontza, prostituzio, haurdunaldi, biluztasun, esterilizazio eta abortuak gehitu behar dizkiegu, baita salerosketa ere. Horretaz gain, gatazka armatuen testuinguruan, "emaztetzat" hartzen ez diren adin txikikoak edonoren eskura jartzen direla, alegia, gozamenerako "erabili" nahi dituzten guztien eskura jartzen direla aipatzea beharrezkoa da.

Errealitate horiek, dudarik gabe, sexu-genero sistemari erantzuten diete. Gayle Rubin antropologoaren arabera «sexu-genero sistema sexualitate biologikoa giza-jarduera bilakatzen duen xedapen multzoan oinarritutako sistema da, zeinaren bidez giza-beharrak asetzen eta genero erlazioak betiketzen diren» (1975: 167-168). Hala, genero erlazioek ez dute soilik emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremana definitzen, baizik eta sistema soziala bere osotasunean ere definitzen dute (Ruiz-Bravo, 1999: 132) eta sistema horren parte, talde armatuak dira.

Equality Now (2008) Gobernu Kanpoko Erakundearen (aurrerantzean, GKE) datuen arabera, adin txikiko nesken % 93,5ak sexu-abusuak jasan dituzte talde armatu bateko kideen partetik. Halaber, neska horien %87,4a ez dago testigantza emateko prest.

Aipatzekoa da, halaber, neska horien %85a, gutxi gorabehera, beren komunitateetara itzultzen direla sexu-transmisiozko gaixotasunen batekin. Azkeneko honek, haur soldadu nesken gizarteratzea oztopatzen duelarik.

Genero problematikari eustean, beharrezkoa da ere haur soldaduen hastapen-errituak aipatzea. Hauek, herrialdearen zein gatazkaren arabekoak dira eta talde edo indar armatuaren berezko zeremonia edo formulak izaten dira, neska askoren erabilera eta esplotazioa dakartenak. Gatibualdiaren iraupenean ere ezberdintasunak aurkitzen ditugu. Ugandan, adin txikiko mutilak hiru urtez egoten ziren talde armatuen barruan, eta neskek, berriz, zazpi urtez (Snowdon, 2016: 10-12).

Datu hauek agerian uzten dute haur soldadu neskek indarkeria endemikoa pairatzen dutela eta ez direla, beraz, bizipen indibidualak baizik eta unibertsala den egitura sozio-kultural batek dituen espresio esplizituak. Esplizituak izateak, ordea, ez du bermatzen opresio mekanismo hauek behar duten ahotsa dutenik. Azken batean, Kalashnikov motako armei eusten dieten mutikoen irudiak munduan zehar ezagunak diren bitartean, bahitutako eta gerran erabilitako nesken errealitatea ezezaguna da oso, baita jasaten dituzten indarkeria ezberdinek dituzten ondorioak ere; eta ikusezintasun horretan datza neskek berriz gizarteratzeko oztoporik handiena. Izan ere, adin txikiko neskek funtsezko hezkuntza-etapak galtzeaz gain, euren kontrako giroan hazten dira eta, horregatik, neskek aurre egin behar dioten oztopo nagusietako bat gizarte-gaitzespena da, bai familien partetik datorrenari baita komunitateen partetik datorrenari ere (Merino, 2018: 47).

Baina, ba al du Nazioarteko Zuzenbideak erraminta espezifikorik haur neska soldaduek jasaten duten indarkeria sexualari erantzuteko? Hurrengo lerroetan, hurbilketa juridikoan erabilitako eskema berari jarraiki, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak eta Nazioarteko Zigor Zuzenbideak haur soldadu nesken kontrako indarkeria sexualari nola heldu dioten aztertuko dugu.

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren testuinguruan, aipatu bezala, *Genevako Konbentzioa* aurkitzen dugu. *1949ko Laugarren Konbentzioan*, honakoa ezartzen da:

«27 artikulua. Emakumeak bereziki babestuko dira beren ohorearen aurkako atentatu ororen aurka, eta, bereziki, bortxaketaren, behartutako prostituzioaren eta haien ahalkearen aurkako atentatu ororen aurka».

Orokorrean, indarkeria sexualeko egintza guztiak debekatzen dira; baita 1977ko Konbentzioaren *I eta II Protokolo gehigarrien* bidez ere. Ordea, ezin daiteke esan gatazka armatuen markoan haur soldadu nesken kontrako indarkeria sexualari aurre egiteko ezer zehatzik egin denik, besteak beste, araudietan ez delako ezarri errekrutatutako nesken kontrako indarkeria egikaritu ezin denik. Greyk (2014: 606) dioen moduan, zantzu nabarmenak daude pentsatzeko debeku hori protokoloetan sartzeko beharra ez zela egon legegileen buruan.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak arazo berdina aurkezten du: adin txikikoen errekrutatze eta izen ematearen arazoaz arduratzen den bitartean, jokabide hori 18 urtetik beherakoen mesedetan debekatuz, erabateko isiltasuna dago errekrutatutako edo izena emandako nesken aurkako sexu-indarkeriaz ari garenean (Reyes, 2017: 55).

Nazioarteko Zigor Zuzenbideak egindako hurbilketa, berriz, lagungarriagoa zaigu, izan ere, Ruandako eta Jugoslaviako Nazioarteko Zigor Auzitegien jurisprudentziak funtsezkoak izan ziren sexu izaerako krimenak nazioarte mailan ikusgai izateko (Grey, 2014: 604).

Gainera, nahiz eta, aurkeztutako beste kasuetan bezala, Erromako Estatutuak ez duen berariaz aipatzen haur soldadu nesken aurkako sexu-indarkeriako ekintzak egiteko debekua, Nazioarteko Zigor Gorteak ekimen ezberdinak aurkeztu ditu eztabaidatzen ari garen egoerari erantzuna emateko. Adibidez, 2014an, Gorteko Fiskaltzak sexuan eta generoan oinarritutako krimenei buruzko politika bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez Erromako Estatutuan aitortutako sexu-krimenek errekrutatutako edo izena emandako adin txikiko nesken aurkako sexu-indarkeria ere barne hartzen zutela adieraziz.

Atal honi amaiera emateko, Nazioarteko Zigor Gorteak Bosco Ntaganda Kongoko buruzagi ohiaren kontrako karguak berresteko hartutako erabakia aipatzea beharrezkoa da (Reyes, 2017: 56). 2014ko ekainaren 9an, Bosco Ntaganda Erromako Estatutuko 8.2) e) VI). artikulua biltzen duen nazioarteko krimenagatik auzipetua izan zitekeela erabaki zen Kongoko Errepublika Demokratikoko gatazka armatuan Lubanga eta Ntaganda buru zituen Union des Patriotes Congolais / Forces patriotiques pour la libération du Congo talde armatuan parte hartzeko errekrutatutako adin txikiko nesken aurkako sexu-indarkeriak zirela eta. Erabaki hau, zalantzarik gabe, mugarri garrantzitsua izan zen adin txikikoak gatazka armatu batek suposatzen dituen arriskuetatik babesteko.

Orain arte ikusi bezala, Nazioarteko Zuzenbideak -Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen bidez- erantzunak planteatu nahi izan ditu, ordea, errealitateak eremu askotan hutsuneak daudela ohartarazi gaitu; batez ere, sexu-indarkeriaren biktima diren adin txikiko neskei dagokionez. Argi dagoena zera da: beharrezkoa da haurrak babesteko estandarra nabarmen handitzea, praktikak erabat debekatuz edo modu eraginkor batean murrizten duten arauak planteatuz.

3 Boko Haram eta haur soldaduak

Boko Haram globalizazioak eta ekonomiak elikatzen duten eta, aldi berean, fanatismo erlijiosoa eta kulturarteko gatazkak bezalako euskarri zaharretan oinarritzen den terrorismo berri baten adibidea da. Gainera, gatazka armatu hau estatuaren eta eragile armatu baten artean gertatzeak, zatiketa-konplexutasun handiko agertokia sortu du.

Agertoki honi, terrorismoaren definizio homogeneorik ez dagoela eta horrek, oztopo bat suposatzen duela gehitu behar diogu (Setty, 2011:9). Izan ere, definiziorik ez egoteak terrorismoaren aurkako jarrera global bateratu bat eraikitzea zailtzen du, maila praktikokan, ezin baita terrorismoaren aurka borrokatzea helburu duten nazioarteko itunen eta Nazio Batuen ebazpenekin lan egin.

Definizioak aparte, ukaezina da baieztatzea nazioarteko komunitateak Boko Haram taldea terrorista bezala kalifikatzen duela. Horren adibide, batetik, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 2014. urtean Boko Haram taldeari santzio finantzarioak eta armak kentzeko betebeharra ezarri zizkiola eta, bestetik, Bake eta Ekonomia Institutuak 2015. urteko Terrorismo Indize Globalean, hilkortasun tasa handienak zituen talde terrorista bezala kalifikatu zuela dira².

Nigeriako gobernuak ere, Boko Haram talde terroristatzat hartzen du. 2004. urtean, Nigeriako Errepublika Federaleko Batzar Nazionalean, Krimen Ekonomiko eta Finantzarioen ezarpen-akta eratu zen. Horretan, terrorismoa, «Zigor Kodea urratzen duen edozein ekintza, pertsona edo talde baten osotasun fisikoa edo askatasuna arriskuan jar dezakeena» bezala definitu zen. Mandatua eratu eta 10 urtetara, 2014. urtean, Nigeriako presidentea zenak, Jonathan Goodluckek, Frantzian emandako hitzaldi batean Boko Haram, nazioaren osotasunerako mehatxu bat bihurtu zela adierazi zuen. Hala, 2004ko ezarpen-aktaren bidez terrorismoa instituzionalizatu zen eta behin instituzionalizatuta, Goodluck presidenteak mehatxu batengan fokuratu zen (Boko Haram) haren izaera terrorista azpimarratuz eta, aldi berean, biktima-nortasun bat ezarriz (Nigeriako biztanleria).

Hurrengo atalean, behin talde terrorista bati buruz ari garela zehaztuta, Boko Haramen jaiotzaren eta garapenaren gakoak berrikusiko dira: jatorrizko herrialdearen ezaugarriak, talde terrorista hori sortzera eraman zuten elementuak eta gaur egun erabiltzen dituen eraso- zein finantzaketa-estrategiak azalduz. Gerora, adin txikikoez aprobetxatzen den talde armatuetako bat dela kontuan hartuz, haur soldaduen erabilerari erreparatuko diogu; eta, azkenik, Nigeriako gobernuak haur soldaduen fenomeno horri emandako erantzun operazionala aztertuko dugu.

3.1 Boko Haram taldearen testuingurua

Boko Haramen jarduera nagusia Afrika mendebaldeko Nigerian aurkitzen dugu (Mohammed, 2014: 9). Nigeria, herrialde populatuenetariko bat da eta errepublika federal presidentzialista baten berezko gobernu-sistema du 1999 urtetik. Britainiar kolonia bat izan zen 1960ra arte eta geroztik, herrialdeak hainbat gobernu-aldaketa jasan ditu erregimen militarrek barne. Aipatu bezala, 1999an demokrazia ezarri zuen eta egun, autogobernu-eskumen zabalak dituzten 36 estatu federatuk eta Abuja Hiriburua Federaleko Lurraldeak osatzen dute Nigeria (Espainiako informazio diplomatikoko bulegoa, 2022: 1).

² Boko Haram taldeari, 2014. urtean, 6.644 heriotza leporatu zitzaizkion eta hurrengo urtean %317an areagotu ziren heriotzak ISIS taldeari aurrea hartuz (The Institute for Economics and Peace, 2015: 6).

Ekonomikoki, Nigeria XXI mendearen hasieratik hona potentzialki hazi da petrolio erauzketa eta esportazioa direla eta (Gourley, 2012: 2). Hala, 2015. urtean, herrialdea, Afrikako lehen ekonomia bihurtu zen, Hegoafrikaren aurretik eta Saharaz azpiko Afrikako BPG osoaren %35a osatuz (Espainiako informazio diplomatikoko bulegoa, 2022: 2). Hala eta guztiz ere, ezin daiteke esan ekonomia bere osotasunean finkatuta dagoenik, izan ere, Boko Haram talde terroristak duen influentziak (Adesoji, 2011: 100), ekonomia nigeriarrak duen banaketa desorekatuak (Torregrosa eta besteak, 2016: 70) eta petrolioarekiko herrialdeak duen mendekotasun eskusiboak (Gourley, 2012: 2) bezalako arrazoiek ekonomia-finkaketa oztopatzen dute.

Sozialki, Nigeriak duen arazo nagusienetariko bat ustelkeria instituzionalaren biktima dela da (Adesoji, 2011: 114). Gainera, tradizionalki ezarritako klase-sozialak bere horretan diraute (Shuriye & Huud, 2013: 106), azkeneko honek, herrialdea bitan zatituta egotea suposatzen duelarik, bai kulturalki baita ideologikoki ere: iparraldean lurralde islamiarra eta hegoaldean lurralde kristaua. Talde etniko eta ideologikoen aniztasun horrek, era berean, barne gatazka erlijioso eta politikoko aniztasun sortu izan ditu (Adesoji, 2011: 104).

Ezaugarri horiek guztiek erakusten dute, Nigeria, ekonomia arloan izugarri garatzen ari den arren, barne-arazo sozialetan ainguratuta dagoela oraindik, eta horrek gatazka politikoen eta fundamentalismo erlijiosoaren biktima bihurtzen du herrialdea (Onapajo & Uzodike, 2012: 27). Ezegonkortasun-elementu horiek guztiek, oro har, Boko Haram talde terroristaren sorrera eragin dute (Torregrosa eta besteak, 2016: 70).

Boko Haramen euskarazko itzulpena, *mendebaldeko gizartearen debekua* edo *mendebaldeko hezkuntza bekatua* litzateke. Hau, Nigerian 2002. urtetik artikulatuta dagoen talde militar fundamentalista islamikoa da (Adesoji, 2011: 99); egia da, ordea, askok 2009. urtean ezartzen dutela taldearen jaiotza; urte horretatik aurrera hasi baitzuen jarduera biziagoa eta gordinagoa garatzen (Torregrosa eta besteak, 2016: 71).

Taldeak, salafismoa ordezkatzeko du (Al-Kaida bezalako taldeak ordezkatzeko duena, alegia) eta 2009. urtetik hona, Al-Kaidaren taktika eta estrategiak imitatzen eta onartzen saiatu da. Hala ere, Boko Haramen jardura tokian tokikoa izaten jarraitzen du (Mohammed, 2014: 10).

Taldearen helburuak, Nigeriako iparraldean shariak zuzendutako Estatu Islamikoaren ezarpena eta desberdintasun politiko eta ekonomikoen kontra egitea dira. Beste hitz batzuetan esanda, Nigeria, islamaren jatorri teorikoetara itzularaztea (Mohammed, 2014: 14). Are gehiago, talde honek mendebaldeko influentzia ororen aurka egiten du, “mendebaldea” erregioaren pobrezia erantzule denaren ideiepean (Lenoble eta Ahmed, 2021: 5).

Boko Haram taldearen eboluzioa, hiru fasetan bana dezakegu (Mohammed, 2014: 10). Lehenengo faseari (2003-2005), Kanamako fasea deritzogu eta taldea Muhammad Aliren gidaritzapean zegoen. Bigarren fasea (2005-2009) *dwah* fasea dei daiteke eta proselitismo, errekrutamentu, doktrinamentu eta erradikalizazio fasea izan zen. Lau urte

horietan, egungo sistema sekularren kritika zabala egin zen, mendebaldeko hezkuntzaren, mendebaldetasunaren eta demokraziaren komenigarritasunari buruzko eztabaidak eman ziren. Gainera, momentu horretan Bornoko burua zenari, Ali Modu Sheriffiri, kritika ugari egin zitzaizkion, bai eta mendebaldeko elite-hezkuntzaren kontsumoari ere. Hirugarren fasea 2009. urtean hasten da, taldearen errepresioarekin eta Nigeriako segurtasun agentziek haien liderrak modu odoltsuan hil zituztenean. Lehenengo hilketa 2009ko uztailean eman zen Nigeriako gobernuak, momentu hartan taldeko liderra zena, Mohammed Yusuf, harrapatu eta hil egin zuenean.


Gertaera horren ostean, Boko Haram klandestinitatera pasatu, berrantolatu eta 2010ean berpiztu zen. Aktibismo terrorista esponentzialki dinamizatu zen (Walker, 2012:2): hautemandako oposizioak erasotzeaz gain, segurtasun-funtzionarioak, Borno estatuko Nigeria Guztiko Alderdi Popularreko (ANPP) politikariak eta Nigeriako poliziaren kuartel nagusia zein Nazio Batuen bulegoak bonbardatu zituzten. Haien kontrako errepresioa areagotu ahala, militanteagoak bihurtu ziren eta eskola-eraikinak erretzeari, telekomunikazio-estazioak erasotzeari, atzerritarrak hiltzeari eta bahitzeari, sarraskiak aurrera eramateari, osasun-funtzionarioak hiltzeari eta ikasleak zein irakasleak ausaz tirokatzeari ekin zioten (Mohammed, 2014: 10).

Egun, Boko Haram taldeak duen *modus operandi*a dela medio, ezin daiteke erantzunik aurreikusi. Alegia, Boko Haramek, hasieran, Nigeriako gobernuaren eta segurtasun indarren kontrako noizbehinkako erasoak zuzentzen zituen heinean; orain, biztanleria zibilaren, nazioarteko erakundeen, faltsutzat hartzen dituzten elizgizonen, gobernu liderren eta eskolen ... kontrako erasoak aurrera eramaten dituzte (Mohammed, 2014: 28). Horretaz gain, taldearen ekintzak finantziatzeko helburuz bankuak eta saltokiak erasotzen dituzte (Echeverría, 2014:10).

Badirudi, beraz, hasierako fokoa galtzen ari direla, hots, hasiera batean bortitza ez zen mugimendu bezala definitzen eta Islam ortodoxoa praktikatzen zuen taldeak; alegia, Nigeriako gobernuarekin kontentagaitz zegoen eta Islamaren eskakizun materialak eta espiritualak bilatzen zituen taldeak, egun, Mahoma profetaren eta Jihadaren irakaskuntzak hedatzeko betebeharra bere gain hartu du indarraren erabileraren bidez.

Erasoak gero oldarkorragoak eta sofistikuagoak izateak, Goodluck presidenteak Nigeriako ipar-ekialdeko hiru estatu federatutan larrialdi egoera ezartzera eraman zuen: Borno, Yobe eta Adamawan (Echeverría, 2014:12). 2015ean, 20.000 kilometro karratu baino gehiago Boko Haramen esku zeudela kalkulatu zen (CEAR, 2015: 44), izan ere, gatazka Txad Aintzirarekin muga egiten duten herrialdeetara -Txad, Niger eta Kamerunera- hedatu zen ere (Escola de Cultura de Pau, 2019: 35). Hurrengo mapan, Boko Haramek aurrera eramandako erasoak non ematen diren modu ikusgarriago batean ikus daitezke.

1. mapa: Boko Haramen aurrera eramandako arazoentzako intzidentzia



Iturria: W. Post.

Azpiatalari amaiera emateko asmoz, taldeak egindako ekintzek Nigeriako iparraldean bidegurutze historiko baten aurrean kokatu dutela aipatzea beharrezkoa da, besteak beste, krisi humanitario, migratzailea eta ekonomikoa eragin dutelako. 1967ko Nigeriako gerra zibilaz geroztik, herrialdean ez da Boko Haram taldearen matxinada bezainbesteko suntsipenik eman ondorio humanitarioei dagokionez. Gainera, egindako ikerketen arabera, Yobe, Borno eta Adamawa estatuetan gosetea igarotzen ari dira biztanleak (CEAR, 2015: 60). 2009tik, Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoak (aurrerantzean UNHCR), gatazkak milaka heriotza, errefuxiatu (244.000) eta barne-lekualdatu (2 milioi baino gehiago) suposatu dituela erregistratu ditu.

3.2 Taldeak adin txikikoez egiten duen erabilera

Afrikan adin txikikoak errekrutatzearen fenomenoak larritasun berezia du; kontinente horretan baitaude, gutxi gora behera, maila globalean errekrutatutako haurren %40a (Dudenhoefer, 2016). Horrela, Txaden, Libian, Malin, Afrika Erdiko Errepublikan, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Somalian, Hego Sudanen eta, oro har, Nigerian adin txikikoen errekrutatze kasuak kezkarriak dira oso.

Gure kasuan, biztanleria nigeriarraren %45a (190 milioi pertsona) adin txikikoak dira eta -nahiz Boko Haramen gaur egun dituen kideak zenbatzeko zailtasun handia dagoen (Torregrosa eta besteak, 2016: 72)- gatazka armatua hasi zenetik haur soldaduen fenomenoaren etengabe haziz doan errealitatea da. Nazio Batuen Idazkari Orokorrak, 2015ean 278 haur soldadu kasu zeuden bitartean, 2016rako 2.122 kasu zirela adierazi zuen. Are gehiago, UNICEF-ek 6.000 haur soldadu baino gehiago Boko Haramen ilaretan daudela kalkulatu du (Le Monde Afrique, 2019). Errekrutamendu hau aztertze helburuz, azpiatal honetan, Boko Haram taldearen baitan dauden adin txikikoen partaidetzaren zergatia aztertuko da eta horretarako, oinarritzko egiturei eta agentziari erreparatuko diegu.

Errekrutamendua, pertsonak helburu militarrekin esplotatzea da (Benett, 1998) eta hau, derrigorrezkoa edo borondatezkoa izan daiteke. Derrigorrezko errekrutatzea, pertsona baten osotasun fisiko edo psikologikoaren aurkako mehatxu, indar edo erasoaren erabileraren bidez lortutako izen ematea da (Arellano, 2009:107). Errekrutatze mota honen barruan bahiketa aurki dezakegu, alegia, Boko Haram taldeak sarritan erabiltzen duen taktika mendebaldeko eskoletara joaten diren adin txikikoak zigortzeko³. Borondatezko errekrutatzea ere eman daiteke. Ordea, hemen, agentzia gakoari erreparatzea beharrezkoa da, adin txikikoei buruz ari baikara. Izan ere, Boko Haram taldeko ilaretara sartzea erabakitzen duten umeei, bi berezitasun dituzte sozializatu duten eremuari dagokionez; alde batetik, eremu behartsu batetik datozela eta bestetik, konposizio demografikoaren eta gatazka berri bat sortzeko joeraren arteko harremanean oinarritzen den eremuan sozializatu dutela (Özerdem eta Podder, 2015: 21). Hala, adin txikikoen errekrutamenduaren testuinguruan egiturazko faktoreei eta faktore indibidualei so egitea beharrezkoa da.

Lehenik eta behin, faktore indibiduala aipatuko dugu. Orokorrean, propaganda terrorista gizarteko talde zaurgarri eta baztertuak erakartzeko moldatzen da. Errekrutatze eta erradikalizazio prozesua alde emozionalarekin lotzen da -indibidua taldearekin identifikatzeko- eta adina edo generoa bezalako faktore demografikoak kontuan hartzen ditu, baita egoera sozial eta ekonomikoa ere bai. Hori horrela, errekrutatzea borondatezkoa izan ezin dela esan genezake; azken finean, adin txikikoen errekrutatzea gatazka armatuaren ondorioz sortu den kalteberetasun sozial eta ekonomikoa eragindako eta ezinbestean hartutako erabakia da. Gainera, banakako parte-hartzearen arrazoi espezifikoek egiturazko faktoreei zein agentzia-mailakoei erantzuten diete ere. Taldearekin batzearen erabakia, sarritan, sarraski masiboekiko, galera pertsonalekiko eta segurtasun falta fisikoarekiko erreakzioa izan daitekeelako (Özerdem eta Podder, 2015: 18).

Egiturazko faktoreei dagokionez, jakin badakigu desberdintasun sozial eta ekonomikoek mugimendu iraultzaileak bultzatu dituztela historiako hainbat unetan. Gogoratu besterik ez dugu behar Boko Haram Nigeriako iparraldean zeuden desberdintasunei erantzuteko jaio zela. Hala, XXI. mendeko gerra berriek sartu dituzten aktore berriek (haurrak, adibidez) ere, egiturazko desberdintasunak direla medio Boko Haram bezalako talde armatu batean sartzea erabaki dezakete. Egiturazko faktoreei buruz ari garenean, gehien bat, pobreziari eta langabeziari buruz ari gara. Izan ere, pobrezia eta langabezia izan daitezke, besteak beste, taldearekin bat egiteko arrazoi nagusiak. 2004. urtean, Nigeriako biztanleriaren % 55-a pobrezia absolutuan bizi zen; 2010. urtean, zifra hori % 61era igo zen, eta geroztik, biztanleriaren erdia baino gehiago, egunero, 1,25 \$-rekin bizi da. Gainera, pobreziaren % 90 Nigeriako iparraldean kontzentratzen da (UNICEF, 2015:8). Boko Haramek hartutako eremuetan pobrezia nabaria da eta horregatik, adin txikiko askok, egonkortasun ekonomikoa lortzeko asmoz, taldearekin bat egitea erabakitzen dute.

³ 2013tik 2016ra bitartean, Boko Haramek hamar mila haur (bost eta hamazazpi urte bitarteko adin txikikoak) bahitu zituen borroka-eremuetan soldadu jihadistak gisa entrenatzeko (Williams, 2016).

Pobreziari eta langabeziari gehitzen zaion beste faktore bat erlijio-irakaskuntzaren ezjakintasuna da. Muturreko erlijio-iritziak hartzeak zaugarriago bihurtzen ditu gazteak, eta zaugarriago, gainera, horiek errekrutatzeo aukera. Hori Boko Haramen kasuan ikus daiteke (Onuoha eta Oyewole, 2018:5). Honi, talde paramilitarraren ideologiaren aldeko familia askok euren adin txikikoak opari bezala ematen dituztela gehitu behar diogu, besteak beste, etorkizun emankorra baten esperoan.

Kontuan hartu behar dugu, gainera, UNICEFen (2016) zifren arabera lehen hezkuntzan eskola-uzte indize altuena dituzten 10 herrialdeen artean Nigeria ere aurkitzen dugula. 2016. urtean, adin txikikoen %34a ez zen eskolara joaten; egun, Nigerian, Kamerunen, Txaden eta Nigerren 11 milioi haur baino gehiago eskolatu gabe daude eta 2.000 eskola baino gehiagok itxi behar izan dute (Nazio Batuak, 2022).

Testuinguru honetan, *Almajiri* fenomenoak aipatzea interesgarria izan daiteke. *Almajiri*, ikasle esan nahi du, zehatzago, ezagutza islamiarra ikasteko lekualdatzen den pertsona. *Almajiri* sistema, printzipio, balore, jurisprudentzia eta teologia islamiarra ikasteko hezkuntza sistema bezala antolatu zen (Gommen eta Esomchi, 2017: 81), ordea, babes ekonomiko faltak praktika geldiaraztea ekarri zuen. Hala eta guztiz ere, egun, guraso askok *Almajiri* eskoletan uzten jarraitzen dituzte euren seme-alabak (gehien bat sei urtetik gorako semeak). Sistemaren funtzionamendua geldiarazita dagoenez, umeak abusu, droga, trafikoa ... eta bestelako esplotazio errealitateen eskuetan geratzen dira eskolan bertan, batez ere, Nigeriako iparraldean. 2012. urtean, 9.5 milioi ume *Almajiri* erregistratu ziren eta erdia baino gehiago, Boko Haram taldeak okupatutako lurraldean kokatzen dira.

Haurrak zaugarriak dira zentzu askotan eta hauen haurtzaroak babes berezia eskatzen duen etapa bat da. Zentzu honetan, beraz, *Almajiri* sistemaren babesa bilatzen duten eta aurkitzen ez duten umeak, subjektu zaugarri bezala identifika ditzakegu Boko Haram taldearekin loturak izan ditzaten. Izan ere, ume horietako askok bizi dituzten ahultasunek talde terroristarekin “borondatezko moduan” lan egitera eramaten dituzte. Puntu honetara ailegatuta, beraz, Boko Haram taldean izena “borondatezko moduan” ematen duten kideak bi motatakoak izan daitezkeela ondoriozta genezake, alde batetik, jatorria eta profilararen araberrako kideak eta, bestetik, taldearekiko identitate bat garatzen duten kideak.

Talderekiko identitatea garatzen duten kideak, orokorrean, beren nortasuna berresteko edo errealizazio pertsonala lortzeko elkartzten dira. Ordea, jatorriaren eta profilararen araberrako kideek oinarritzko gabeziak asebetuta ez izategatik elkartzten dira, hots, borondatez izena ematen duten adin txikiko gehienek kasua. Azkeneko hauek Boko Haram taldeko gehiengoak dira (Torregrosa eta besteak, 2016: 72)

Azpiatal honi amaiera eman aurretik, ezin dugu aipatu gabe utzi Nigeriako ejerzituak eta gobernuak laguntzeko sortu diren milizia zibilek ere giza eskubideen kontrako urraketa argiak burutu dituztela adin txikikoen aurka. Amnistia Internazionalaren esanetan, 2013. urtetik, Nigeriako soldaduek eta polizia entrenatzen duten Civilian Joint Task Force (aurrerantzean CJTF) miliziak, adin txikikoak ere errekrutatu izan ditu gatazka armatuetan jarduteko.

CJTFk Maidugurin du egoitza, Bornoko estatuan eta 2013tik 2017ra bitartean, gutxienez, 2.203 adin txikiko errekrutatut zituen. Hala, 2017. urtean eta Nazio Batuen esku sartzeaz geroztik, Nigeriako gobernuak 833 haur soldadu desmobilizatu zituen Nazio Batuekin haurren errekrutatzeari eta erabilerari amaiera eman eta aurrea hartzeko ekintza-plana sinatu ondoren (Nazio Batuen S/2020/652 txostena, 2020: 5).

3.3 Genero dinamikak aztergai: haur soldadu neska Boko Haramen

Gatazka armatuen azterketetan hutsune bat dago beste guztien gainetik, izan ere, hauek genero ikuspuntutik fenomeno neutraltzat aztertzen dira (zirion, 2017a: 380). Gaur egun, ordea, jakin badakigu generoak gatazka armatuen sorreran, zergatietan, garapenean eta ondorioetan garrantzi handia duela, esparru horietan ere maskulinitate eta feminitate askotarikoak eta desberdinak sortzen eta erreproduzitzen direlako etengabe (Mujika eta zirion, 2019: 16). Boko Haram taldeak adin txikikoen oinarrizko eskubideak larriki narriatzen ditu talderatzen dituzten momentuan, are gehiago, neskenak.

Testuinguru honetan garrantzitsua da azpimarratzea nire helburua ez dela, inolaz ere, "haur soldadu neska unibertsalaren" esperientzia biltzea, izan ere, "esperientziak" pluralean kontuan hartzea garrantzitsua da "gizon unibertsala" iruditeriaren kontrapartida gisa sortzea ekiditeko. Horregatik, "genero-ikuspegi" terminoa erabiltzen dudanean, "genero-ikuspegi feminista"-ri egiten diot erreferentzia, "genero" terminoa sexuen arteko desberdintasunean ematen dela ulertzeko eta botere-terminoetan neutro bezala deskribatzen duen jarrera horretatik aldentzeko. Femeninoa, arraza eta klase soziala bezalako kategoria kultural batzuekin eraiki beharreko kategoria da, hortaz, lan honetan generoak/arrazak/klase sozialak duten rola zehaztea garrantzitsua izango da; ez bakarrik itzaletatik sortu diren jakintzak eraikitzeko eta eraldatzeko moduak etsaminatzeko, baizik eta emakumeek komunitateetan duten eginkizuna eta lortu duten espazio oso mugatua aztertzeko ere. Hala, generoa azterketa-ikuspegi bezala erabiltzeak, jakintza-paradigma klasikoak berrirakurri eta berrinterpretatzeko beharra azpimarratzen duenez eta lan honen helburua haurren gizarteratzea aztertzea denez, premiazkoa deritzot Boko Haramen baitan haur neska soldaduen kategoria aztertzea.

Aurreko azpiatalean aipatu bezala, Boko Haram bahiketaz baliatzen da errekrutatze-estrategia bezala –eta, gehien bat, adin txikiko nesken bahiketaz-. Taldearen lehengo bahiketa-operazioa 2013ko otsailean eman zen, Kamerungo iparraldean zazpi kideko familia frantziar bat bahitu ondoren, eta ondoren Nigeriara itzuli zen. Familiak lau seme-alaba zituen (The Guardian, 2013). Geroztik, Boko Harami 500 nesken bahiketa leporatu zaizkio.

Badirudi, generoan oinarritutako bahiketak taktikoak direla (Zenn eta Pearson, 2014: 50) eta horren adibide 2013ko azaroan nazioarte mailan zabaldu zen kasu hau dugu: taldeak, 18 urteko neska bat, Hajja, Borno estatuko Gwoza landa-eskualdean bahitu eta sukaldatzera eta garbitzera behartu zuten. Hajja, hiru hilabete eman zituen gatibualdian eta Islamera bihurtzera behartu, taldeko gizon batekin ezkondu eta hamalau pertsonako taldearentzat lan operatiboak egiteko presioa egin zioten. Hajja, gobernuko soldaduak erasotuak izan zitezkeen lekuetara erakartzeko erabili zuten, baita Boko Harameko kideek etsaiak harrapatu

ondoren eztarria nola mozten zieten ikusteko. Egoera horretan, emakume asko daudela uste da.

Baina zergatik, gehien bat, adin txikiko neskek bahitzen dituzte? Bada, aurreko kasua ikusita, batetik, arrazoi politikoengatik (talde armatuak jakin badakielako nesken bahiketek, estaldura mediatiko handiagoa dutela eta, beraz, ikusgarritasun handiagoa nazioarte mailan)⁴ eta bestetik, pragmatikoengatik (adin txikiko neskek gerra- eta etxe-erabilera handikoak direlako) (Maiangwa eta Amao, 2015: 119).

Hala bada, Boko Haramen jarduteko metodokoak aldaketak izan ditu, hasieran, arma laburrak erabiliz eraso sinpleen bidez jarduten zuten. Gero, beste arma mota batzuk gehitu zituzten, molotov koktelak eta lehegailu txiki inprobisatuak; egun, bahiketen, armamentu militar astunagoaren eta atentatu suiziden bidez erasotzen dute (Torregrosa eta besteak, 2016: 72) eta bonbekin egindako atentatu suizidetan emakumeak eta haurrak erabiltzea talde honen ezaugarri komuna da (Maiangwa eta Amao, 2015: 137).

Aurretik aipatutako bahiketek, Boko Harami misio suizidetarako tresnen etengabeko eskuragarritasuna ziurtatzen diote eta, gainera, bahitutako neskei eta emakumeei operazio suizidetan lan egin izanaren kezkarri sinesgarritasuna ematen dion ebidentzia zabala dago, izan ere, Yobe eta Kanoko autobus-geltokietan eta merkatuetan erregistratutako atentatu guztiak 17-18 urte bitarteko neskek egindakoak dira (Macpherson eta besteak, 2018: 37).

Erregistratutako lehengo atentatu suizida 2014ko ekainean eman zen. Geroztik, mila neska baino gehiago erabili dira meskitetan, merkatuetan edo autobus geltokietan atentatu suizidetarako edo txaleko leherkorrekin atxilotuak izan dira (UNICEF, 2019b).

Argi dago estrategia honen atzean dagoen ideia emakumeak eta haurrak erabiltzea abantailak dituela dela. Alde batetik, adin txikikoak izateak suposatzen duen errugabetasunagatik eta bestetik, neska izateak miaketa fisikoak saihestea suposatzen duelako. Horrela, libreki mugi daitezke gobernuak kontrolatutako eremuetan, informatzaile eta errekrutatzaile lanetan. Era berean, emakumeak haurdun geratzeko duen gaitasunak eta gorputzean aldi berean gertatzen diren aldaketek erraztu egiten dute armak eta bonbak amatasuneko arropak erabiliz ezkutatzeko aukera (Macpherson eta besteak, 2018: 35).

Boko Haramek aurrera eramaten duen beste jarduera bat emakume eta adin txikiko kristauen aurkako indarkeria da: bortxaketak, torturak eta hilketak barne. Nigeriako Indarkeria Politikoa Ikertzeko Sarearen ikerketa batek Boko Haramek eraildako %45a baino gehiago emakume eta haur kristauak direla azaleratu du (Zenn eta besteak, 2013: 99).

⁴ Honen adibide ere, Boko Haramek 2014ean aurrera eraman zuen bahiketa dugu, non Nigeriako ipar-ekialdeko Chibokeko institutu batean, guztira, 276 bat neska bahitu zituen eta taldeko buruzagiek esklabu gisa salduko zituztela edo taldeko kideekin ezkonduko zituztela mehatxatu zuten (CEAR, 2015:54). Nazioarte mailan, orain arte, oihartzun handiena izan duen kasua dugu hau.

Gainera, ezin dugu aipatu gabe utzi adin txikiko neskek Boko Haramen sartzen direnean, taldeak, familiei maileguak ematen dizkietela, besteak beste, negozioak irekitzeko edota armak izateko, hots, boterea eta estatusa eskuratzeko (Matfess 2017: 22). Beste hitz batzuetan esanda, familiek euren alabak talde terroristari saltzen dizkiote.

Amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea, halaber, Boko Haram taldeak ez duela emakume eta adin txikiko nesken aurkako indarkeriaren monopolioa Nigerian. Gobernuko tropei arpilatzea, bahiketa, hilketa eta bortxaketa ere leporatu baitizkiete.

Laburtuz, atal honetatik hiru gauza ondoriozta ditzakegu. Lehenik, adin txikiko nesken eta emakumeen bahiketa Boko Haram taldearen taktika ofiziala bihurtu dela 2013tik. Bigarrenik, Boko Haramen bilakaera taktikoaren ondorioz emakumeak taldean laguntzeko roletan inplikatu dituztela; emakume kristauak bahituz, atentatu suizidak aurrera eramanez edota adin txikiko neskek etxeko andre bezala aritzera behartuz. Hirugarrenik, Nigeriako gatazka armatuan kontrajarriak dauden bi aldeek emakumeak erasotzen dituztela arrazoi instrumental hutsengatik, izan ere, oraindik ez dirudi emakumeak borrokan bertan modu aktiboan eta borondatez parte hartzen dutenik (Zenn eta Pearson, 2014: 52). Atal honek, hala, honako ideia azaleratu du: Boko Haramen taktiken, mezuen eta indarkeriaren osagai gero eta garrantzitsuagoa generoa eta adina dira.

3.4 Boko Harametik ateratzen diren haurren egoera

Ororen gaintetik eta, lehenik eta behin, lan honek bere baitan duen baieztapen nagusia balioetsi behar dugu: gerrak eta eragile armatuak ez dira pertsonetan eta komunitateetan eragina duten aktore bakarrak. Pertsonen babes, laguntza eta ongizatea eskaintzera bideratutako ekintzek eta proiektuek ere eragina dute eta honek, testuinguru konplexu horietan haur soldaduen gizarteratzea bideratzeko ematen diren logiken eta proposatzen diren irtenbideen azterketa kritikoa egitea suposatzen du.

Adin txikikoen gabeziak, gerra testuinguruan areagotzen dira eta horiek asetu ez ezik, errotzen dira. Honen aurrean, zenbait autorek, bakearen eraikuntzaren bidez gabeziei aurre egitea proposatzen dute. Baina zer ulertzen da baketzat?

Bakearen egungo interpretazio nagusia estatuzentrikoa -Estatuak dira erreferentzia-, militarra -diagnostikoak, aktoreak, irtenbideak eta baliabidea militarrek dira-, negatiboa -gatazka armaturik eza gisa ulertzen da- eta kontserbadorea da (Mujika eta zirion, 2019: 11). Bakearen definizio horrek, ordea, ez du kabidarik lan honen markoan, bakea prozesu komunitarioa izan beharko lukelako, izan ere, gatazkaren (bir)sorrera prozesu komunitarioa da eta hori den bezala, hots, sistema sozial bat osatzen duten alde ezberdinek modu baztertzailan elkarri eragiten dioten prozesua den bezala, gatazkaren ebazpena edo eraldaketa horrela ulertu beharko genuke ere (Retolaza, 2019: 30-34). Beraz, hasiera puntua honakoa da: haur soldaduen gizarteratze erreal batek, gatazkaren aldagai guztiekin lan egitea eskatzen du -adin txikikoak barne- eta horrela bakarrik, oinarrizko elkar bizitza testuinguru bat berrezar daiteke.

Hala bada, azpiatal honetan, Nigeriako iparraldean kokatzen dugun Boko Haram talde terroristaren testuinguruan haur soldaduen gizarteratze prozesu bat emateko marko egokia existitzen den edo ez etsaminatuko da. Horretarako, lehenik, Nigeriako testuinguruaren baitan, estatuak, haurrak babesteko dituen tresna juridikoak aztertuko ditugu eta bigarrenik, Nigeriako gobernuak haur soldaduei dagokionez eman duen erantzun operazionala aipatuko dugu, praktikan, Boko Haramen parte izandako haur soldaduek birgizarteratzeko benetako eskubidea duten edo ez ondorioztatzeko.

3.4.1 Haurrak babesteko marko juridikoa Nigerian

Haur soldaduen fenomenoaren kontra borrokatzeko marko arauemailea 1990. urtean hasten da Afrikan. Izan ere, urte horretan *Haurren Eskubideei eta Ongizateari buruzko Afrikako Gutuna* onartu eta 1999. urtean indarrean sartzen da. Horretan, haurren ongizatea, duintasuna eta haztea kaltetzen dituzten praktika sozial eta kulturalak ezabatzeko beharrezko neurriak hartzeko estutu ziren estatuak -praktika kaltegarri kontzeptuaren barruan haurrak gatazka armatuan erabiltzea ulertzen delarik-.

Urte berean, 1990ean, Delinkuentzia Antolatuaren Aurkako NBen Konbentzioa eta haren Palermoko Protokoloa berresten ditu Nigeriak, zeintzuek pertsonen salerosketa saihestu eta zigortzen dituzten, batez ere emakumeena eta haurrena (Lenoble eta Ahmed, 2021: 9).

1994ean, Nigeriako gobernuak honek berretsitako nazioarteko itun guztiak aurkezteko organo administratibo bat sortzen du, alegia, Haurren Eskubideak Egikaritzeko Batzorde Nazionala. Are gehiago, Nigeriak, haurren eskubideak babesteko konpromezua hartu zuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 2006an onartutako Gazteen Afrikako Gutuna eta Emakumeen Kontrako Diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Hitzarmena berresterakoan. Eta horren isla, 2000. urtean, izaera nazionaleko Haurren Parlamentuaren sorrera (Lenoble eta Ahmed, 2021: 9) eta 2014an 1612 Ebazpenaren mekanismoaren erabilera -mekanismo honen bidez, gatazka armatuetan, adin txikikoen kontra egikaritzen diren eskubide urraketak behatu eta dokumentatzen dira- lirateke.

Ibilbide arauemaileak, ordea, praktikotasun hutsuneak ditu. Horien artean, legearen aplikagarritasunari lotutakoak. Nigeriak, 90eko hamarkadan Haurren Eskubideari eta Ongizateari buruzko Gutuna aldarrikatu zuen Haurren Eskubideei buruzko Legearen bidez, ordea, Nigeria iparraldeko 10 estatuk ez dute Lege hau onartu. Estatu horietan, shariak gobernatzen du (The Guardian Nigeria, 2018) eta lege islamikoaren eta nazioartekoaren artean, islamikoa gainjartzen da. Egia da shariak adin txikikoen erabilera debekatzen duela gatazka armatuetan, ordea, adin txikikoaren ulermen ezberdin bat dute: Haurren Eskubideei buruzko Legeak adin nagusitasuna 18 urteko mugan ezartzen duen bitartean, lege islamikoak, pubertaroan, hots, adin txikikoak ugaltu daitezkenean ezartzen du.

Horrenbestez, ez gaude soilik Haurren Eskubideei buruzko Legearen urraketaren aurrean: giza eskubideen kontrako urraketa orokor baten aurrean gaude. Aipatutako testuinguru honetan, zentzu berean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren (Nazio

Batuak, 1948) hirugarren -bizitzarako, askatasunerako eta duintasunerako eskubidea-, laugarren -esklabutza eta menderapen debekua-, bostgarren -tratu umiliagarria ez jasotzeko eskubidea- eta hasieran aipatu dugun hogeita bosgarren -amek eta hurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea- artikulua urratzen dira. Halaber, hurrek gatazka armatuetan duten parte hartzeari buruzko 2007ko Parisko Printzipioak larriki urratzen dira, baita, Haurren Eskubideen Afrikako Gutuna eta 2006ko Gazteen Afrikako Gutuna ere.

Egia da, orain arte zerrendatutako marko juridikoa osatzen duten nazioarteko arau gehienak mendebaldetik idatzita daudela eta horiek, gehienetan, ez dutela errealitate islamiko eta tradizionalekin bat egiten. Era berean, gatazka-egoeretan legeen aplikagarritasuna zailagoa den bitartean, badakigu, gainera, gobernu eta agintari batzuek, *de facto*, beren jardunbideei eragin diezaieketen nazioarteko lege batzuk onartzeko beldur direla (Lenoble eta Ahmed, 2021: 11). Adibidez, adin txikikoak errekrutatzeari buruzko araudia aplikatzea ez zaio interesatzen CJTF talde parapoliziarri (Francis, 2007: 207) eta horregatik, Nigeriako gobernuak ez ditu araudi horiek berresten. Honek agerian uzten du, tamalez, errespetu juridikoaren arloko aurrerapena nahiko motela izaten jarraitzen duela Nigerian (Breen, 2007: 71).

3.4.2 Nigeriako gobernuak emandako erantzun operazionala

2004ko Nigeriako Errepublikaren Konstituzioaren 14. artikuluan Nigeriako estatuak duen segurtasunari buruzko nozioa aurkitzen dugu (Montalvo, 2018: 89). Horren arabera, herriaren segurtasuna eta ongizatea gobernuaren helburu nagusi izango dira, hau, haren interes nazionala izanda. Estatuak da segurtasunaren erreferentzia, izan ere, estatuak bere gain hartzen du herritarren babesteko erantzukizuna. Beraz, herritarren segurtasuna bermatuta egongo da estatuaren segurtasuna bera ere bermatuta dagoenean. Horrek, aldi berean, Nigeriako segurtasun-indarrak Estatuaren zerbitzura egotea ahalbidetu du: disidentziaren, oposizioaren eta herritarren protesten aurkako errepresioan. Hala, Nigerian sortutako indarkeria, hein handi batean, Nigeriako Estatuak berak eragindako indarkeriari emandako erantzun zuzena dela esan dezakegu. Goaz bada, Nigeriako gobernuak Boko Haramen jardueren aurrean izan duen erantzuna aztertzeraz; aldi berean, haur soldaduei emandako trataera aztertzen dugun bitartean.

Egun ez dago bake-akordiorik Nigeriako gobernuaren eta Boko Haram taldearen artean; ordea, negoziazio proposamenak egon dira nahiz eta hauek oso esanguratsuak ez diren izan.

2011ean, taldeko bozeramailea zela zioen gizon batek su-etena proposatu zuen gobernuak Boko Harameko kideei Maiduguri eta Bauchiko meskitak uzten bazizkion. Gizona, bat-batean desagertu eta, aldi berean, ikerketa batek taldearen barruan zatiketarik egon zirela azaleratu zuen. Urte bereko irailean, Olusegun Obasanjoren, Nigeriako presidente ohiaren, eta Babakura Fuguren, Mohammed Yusufen koinatuaren, arteko elkarrizketak negoziatu ziren. Bilera amaitu eta gutxira, zenbait gizon armatuk Babakura Fugu tiroz hil zuten. Hala ere, Boko Haramek hilketa ukatu egin zuen (Walker, 2012: 11).

2012ko urtarrilean, Boko Haramen fakzio disidente moderatua zela zioen talde batek zinta bat bidali zuen Telebistako Agintaritza Nazionalaren katera negoziatzeko prest zegoela esanez. Lau egun geroago Maidugurin, Boko Haram zela zioten persona batzuek, dozena erdi pertsona hil zituzten jendaurrean (Walker, 2012: 12).

Gobernuak Boko Haramekin izandako azken negoziazioa, 2018ko martxoan eman zen taldeak, otsailean, Dapchin 110 adin txikiko neska bahitu ondoren. Helburua, nesken askatasuna bazen ere, gobernuak eta talde terroristak su etena negoziatzen saiatu ziren, ordea, ez zen adostasunik eman. Geroztik, erasoak anitzak izan dira azkenekoa 2022ko uztailan eman delarik, non Boko Haramek espetxe bat bonbardatu eta espetxeratuta zeuden dozena bat kidek ihes egitea lortu duten (Swiss Info, 2022).

Baina, zergatik negoziazioek porrot egiten dute? Bada, autore askok talde paramilitarraren eskakizunak bete ezinak direla defendatzen dute, baita, askotan, kontraesankorrak direla; adibidez, alde batetik, Nigeria bitan -iparraldean eta hegoaldean- zatitu nahi dutela diote eta, bestetik, Nigeria osoa sharía legearen menpe egon behar duela (Walker, 2012: 12). Hala eta guztiz ere, guztiz politikoak diren eskaerak eta, beraz, bete daitezkeen eskaerak ere egin dituzte, adibidez, gobernuak atxilotutako goi mailako kideen askapena, kendutako ondasunen itzulpena edota taldeko kideen exekuzioaren erantzuleak zigortzea eskatzen dutenean.

Ezin dugu ahaztu, gainera, gobernuko segurtasun-indarrek Boko Haramen aurka eraso basatiak aurrera eramaten dituela. Poliziaren kontrol beldurgarriak eta judizioz kanpoko exekuzioak egunero ematen dira. Zentzu horretan, Walker (2012:13) honakoa azaleratzen du: Maiduguri eta Kanoko jendea, gehienbat, Boko Haram baino beldurtuago dago poliziaz eta armadaz. Hala, iparraldeko segurtasun ezak eta indarkeria indizeen areagotzeak eremu aparta sortzen dute giza eskubideen urraketak emateko, horietako askok, adin txikikoen osotasun fisiko zein psikikoaren kontrako erasoak direlarik, izan ere, Nigeriako gobernuak Boko Haramen kontra planteatutako erantzun operazionalaren markoan funtsezko pieza bihurtu dira haur soldaduak.

Boko Haram taldearen ilaretatik beren ekimenez zein armada nigeriarrak harrapatuta ateratzen diren adin txikikoak, susmagarriak dira lehenespenez, eta, hala, ikertu eta atxiki egiten dituzte nazioarteko zuzenbide humanitarioarekiko legez kanpokoak diren egoeretan (Human Rights Watch, 2019). Human Rights Watch GKE-ren arabera, «NBE-ak, indar armatu nigeriarrek 3.600 haur baino gehiago atxilotu zituztela jakinarazi zuen 2013ko urtarriletik 2019ko martxora bitartean, horien artean 1.617 neska. 2018an, nabarmen jaitsi zen atxilotutako haurren kopurua, nahiz eta agintari nigeriarrek sistematikoki ukatu dioten NBERi atxiloketa militarreko zentroetan sartzea, atxilotutako adingabeen benetako kopurua egiaztatzeko» (Human Rights Watch, 2019).

Behin atxilotuta, epaitu egiten dituzte adin txikikoen zigor egozgarritasunak planteatzen duen problematika alde batera utziz. Izan ere, ba al dira haur soldaduak erantzule euren ekintzengatik? Legearen aurkako ekintzek erantzukizun bat dakartzate, baina horretarako, hiru baldintza bete behar dira: ekintzaren ebidentzia, ekintza egiteko asmoa eta

ekintza aurrera eramateko gaitasuna (Ahmed, 2011: 19). Azkenekoak, gure testuinguruan, garrantzi nabarmena du, izan ere, ba al da adin txikiko haur bat gai burutzen ari duen ekintza guztiz ulertzeko?

Haur soldaduen auziari eta nazioarteko erantzukizun penalari dagokionez, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren zeregina erabakigarria da, ordea, ez dago adostasun unibertsalik haurrak epaitzeko gutxieneko adinari dagokionez, hau, herrialde batetik bestera aldatzen baita (Ahmed, 2011: 30). Beraz, haur soldaduen erantzukizunari dagokionez, estatu bakoitzak nahierara zehatz dezake erantzukizun penalerako legezko gutxieneko adina eta iparraldeko Nigerian, gutxieneko adin hori 7 urtetan dago ezarrita 1960ko Zigor Kodeari jarraiki. Are gehiago, Sharia indarrean dagoen eta 2003ko Haurren Eskubideen Legea aldarrikatu ez den iparraldeko estatuetan, haur soldaduen biziarteko espetxealdia aldarrikatzen da.

Espetxeratzeaz gain, Nigeriako gobernuak terrorismoari aurre egiteko hartutako neurrietako bat 2011ko Terrorismoa Prebenitzeko Akta sortzea izan zen. Bertan, ekintza terroristatzat jotzen dena definitzen da eta ekintza horiek egiten dituzten pertsonen espetxeratzea ezartzen da (Terrorismoa Prebenitzeko Akta, 2011: 28. artikulua).

Umeen espetxeratzeak, honakoa azaleratzen du: nahiz eta Nigeriak nazioarteko hitzarmenak berretsi eta legeak egin, adin txikikoak babes juridikorik gabe geratzen dira behin atxilotuak direnean, lehenik, nazioarteko legeak Nigeriako iparraldean bezalako ingurune batean aplikatzea zaila delako; bigarrenik, ejerzitu nigeriarrak ez dituelako haurren eskubideak errespetatzen atxilotetean eta azkenik, adin txikikoen epaiketa justuak izan daitezen mekanismo juridikoak errespetatzen ez direlako. Hala eta guztiz ere, ez da epaiketen inguruko zehaztasunik eman, izan ere, epaiketak egotekotan hauek bereziak izan beharko lukete eta ebazpenak, gizarteratze eta integrazio neurriekin batera eman beharko liriateke (Ward, 2012: 821).

Laburbilduz, atal honek, Nigeriak haurren babeserako nazioarteko tratatuak sinatu eta berretsi badituen ere, islamikoak eta kontserbadoreak diren ipar-ekialdeko estatuak oraindik ez dituztela onartu azaleratu du. Izan ere, lege islamikoa eta ohiturazkoa nazioartekoari gailentzen zaio. Gainera, ejerzituak, ikuspegi antiterrorista gailentzen du haurren eskubideei eta horrek, legez kanpoko atxilotetak eta bestelako mekanismo juridikoak sistematikoki ez errespetatzea bideratu du. Orain arte egindako azterketak, adin txikikoek beharrezkoa duten laguntza psikologikoa, soziala eta ekonomikoa jasotzeko aukerarik ez dutela erakutsi digu. Hala, pobrezia juridiko eta instituzional honen markoan, non haurren babesa eta haien eskubideekiko errespetua ia ez den bermatzen, posiblea litzateke haur soldaduen gizarteratze erreal bat planteatzea?

4 Boko Harametik ateratzen diren haurren gizarteratzea

4.1 DDR programak

Haur soldaduen gaiari eskaintzen zaion nazioarteko arreta gero eta handiagoa izan arren, ikerketa gutxi egin dira uneko gatazka baten testuinguruan, hots, esku artean dugun kasuaren testuinguruan haurren armagabetze-, desmobilizazio- eta gizarteratze-programei buruz. Gainera, gatazka espezifikoko bakoitzaren testuinguru soziopolitiko eta kulturalari buruzko ikerketa-faltak DDR programa ez-eraginkor eta orokortuak planteatzea ekarri du, zeintzuek haur soldaduen ongizate psikosoziala arriskuan jarri duten (Pauletto eta Patel, 2010: 35). Hala bada, atalari DDR programen hurbilketa kontzeptual batekin hasiera emango diot, gerora, Nigerian eman diren DDR programak aipatzeko.

4.1.1 Hurbilketa kontzeptuala: DDR Nigerian

2006. urtean, Nazio Batuek DDR programei buruzko Nazio Batuen Estandar Integratuak argitaratu zituzten NBE-ak zuzendutako prozedura guztien gidalerro izan zedin (Nazio Batuak, 2006). Horren arabera, DDR prozesuen helburua gerraosteko testuinguruetan segurtasuna eta egonkortasuna lortzen laguntzea da, besteak beste, suspertzea eta garapena has daitezen (Nazio Batuak, 2006: 1). Esan genezake, beraz, DDR prozesuak gatazka armatuak arindu eta bake-akordioak sinatu ondoren izaten diren aldiak direla. Prozesu hauen bidez, soldadu izan direnak armak entregatu, desmilitarizatu, bizitza zibilera itzuli eta berriz komunitateetan txertatzen dira (Zirion, 2012: 25). DDR-ak, hiru osagai ditu eta hurrengo lerroetan hirurak labur-labur aipatuko dira.

Armagabetze prozesuan, borrokalarien eta biztanleria zibilaren arma txikiak, munizioa, lehegailuak eta arma arin zein astunak bildu, dokumentatu, kontrolatu eta baztertu egiten dira. Prozesu honek, armak modu arduratsu batean kudeatzeko programak ere aurreikusten ditu (Nazio Batuak, 2006: 17).

Desmobilizazioa, bi etapa barne biltzen dituen prozesua da. Hau indar armatuetako edo beste talde armatu batzuetako borrokalari aktiboen baja formal eta kontrolatua da. Desmobilizazioaren lehen etapan, aldi baterako zentroetan borrokalariak auzipetzetik, kanpamentuetan tropak kontzentratzeraino zabal daiteke. Bigarren etapak, aldiz, desmobilizatuei gerora datorren birgizarteratzean laguntzea du helburu (Nazio Batuak, 2006: 17).

Gizarteratzea borrokalari ohiak egoera zibila lortzeko eta enplegu eta errentagarritasun iraunkorra lortzeko prozesuan datza. Gizarteratzea, funtsean, prozesu sozial eta ekonomikoa da, iraunaldi irekian eta tokiko komunitateetan gertatzen dena. Herrialde baten garapen orokorraren eta nazioz gaindiko erantzukizunaren parte da, eta sarritan epe luzerako kanpoko laguntza behar izaten du (Nazio Batuak, 2006: 25). Haurren gizarteratze fasea, haurrak Aldi Baterako Arreta Zentroetan sartzen dituztenean hasten da – ez ordea beti-, non etxera itzultzeko prestatzen laguntzen dituzten, familiak eta komunitateak haurrak jasotzen prestatzen dituzten bitartean. Zentro horietan, arreta handia jartzen da

hezkuntza-jardueretan, jolas-jardueretan, laguntza psikologikoan eta aholkularitzan (Nazio Batuak, 2006:17).

Orokorrean, DDR programak soldadu ohiak gerraosteko gizarte batean zibil gisa gizarteratzeko tresna instituzionala direla esan genezake eta gizarteratzea da, zalantzarik gabe, DDR programaren faserik erronkatsuen eta eztabaidagarriena (McMullin, 2013: 413). "DD" pausoak mekanikoak direla pentsa daitekeen bitartean; "R" prozesu sozial bat da, non soldadu izandakoak euren komunitateetara itzultzen diren zibil gisa identifikatuz (Knight eta Özerdem, 2004: 499). Hala, armagabetzea egun edo ordu batzuetan amaitu daitekeen bitartean, gizarteratzea prozesu ireki gisa ulertu behar da. Izan ere, gizarteratzea, prozesu konplexua, luzea eta alderdi askokoa da -oso esparru desberdinak hartzen baititu barne: ekonomikoa, soziala, politikoa eta psikologikoa-. Hortaz, harrera egingo duten familien eta erkidegoen sostengua behar da ezinbestez (zirion, 2012: 30). Ondo planifikatutako irteera-estrategia bat da, aktore nazional eta lokalen gaitasun eraikitzailean eta jabegoan enfasia duena.

Irteera-estrategia hori, ordea, helduentzako programetik desberdindu beharko litzateke. Izan ere, haurren eskubideen arabera, haur soldaduentzako DDR programak gatazkan zehar eta gatazka ondoren inplementatu behar dira, giza eskubideei buruz ari garelako –eta ez segurtasun kontuei buruz-, hots, haur soldaduen DDR programen helburua haurrek esplotaziorik gabeko bizitza batez gozatzeko dituzten eskubideak berrezartzea da. Aitzitik, helduen DDR programak gatazka osteko egoeretan soilik inplementatzen dira.

Nigeriako kasuari dagokionez, egun, iparraldean hiru deserradikalizazio programa existitzen dira (Lenoble eta Ahmed, 2021: 12). Lehenengoak, Europar Batasunak finantziatzen du 2014tik eta lan formakuntzan fokuratzen da. Ez dira, ordea, adin txikikoak barne hartzen. Bigarrena, Operation Safe Corridor delako programa da eta 2016tik Gombeko estatuak finantziatu du (Bukarti eta Bryson, 2019: 12) indar armatuek eta nazioarteko erakundeek osatutako eragiketa bat bailitzan Boko Harameko kide damutuak deserradikalizatzeko, birgaitzeko eta gizarteratzeko. Programa honek, hasieran, ez zituen adin txikikoak kontuan hartu, ordea, UNICEF inplikatu zen eta 2019an, 86 haur soldadu ohi birgaitzea lortu zen (Nigerian Tribune, 2020). Hirugarren programa 2017tik indarrean dago eta Neem Fundazioak bideratu du emakumeetan eta adin txikietan fokuratuz zerbitzu psikosozialen eta birgizarteratzeko zerbitzuen bidez (Lenoble eta Ahmed, 2021: 13).

UNICEFek, nagusiki, Boko Haramen parte izandako haurrek behar dituzten erantzunak ematen lagundu dio gobernuari. Zehazki, UNICEF, Nigeriako ipar-ekialdean, komunitate mailan laguntza psikosozialeko, erregistroko, familia-bategiteko eta elkarrizketako programen arduraduna da, bai eta errehabilitazio sozialeko eta integrazio programen arduraduna ere. Gainera, Boko Haramek errekrutatu eta erabili dituen umeak gizarteratzen laguntzen du. Are gehiago, UNICEF lanean ari da atxilotutako haurrak entregatzeko protokolo bat aplikatzeko Emakumeen eta Gizarte Garapenaren Ministerioarekin. Horren arabera, armada adin txikikoak 72 orduko muga askatzera behartuta dago atxilotutako. Badirudi Ministerioa, eta batez ere armada, irekita dagoela horrelako ekimenetara. Proba gisa, 2020ko martxoaren 3an, 223 ume, horien

artean 10 neska, Nigeriako administrazio-agintariei esker askatuak izan ziren, lehen aipatutako atxiloketa-aldi luze baten ondoren -batzuk 4 eta 5 urte bitartekoak-. 2016tik, dagoeneko, 1.743 adin txiki daude (1.125 mutil eta 618 neska) Gobernuaren 'administrazio-zaintzatik' aske. Egun, oraindik, 3.000 adin txiki baino gehiago zaintza mota horren pean jarraitzen dutela estimatzen da (Lenoble eta Ahmed, 2021: 14).

Aipatzekoa da, azkenik, 2017an, Boko Haram taldearekin DDR prozesu bati hasiera emateko hausnarketa eman zela, baina ez zen adin txikikoen inguruan ezer planteatu (The Guardian Nigeria, 2018). Urte bat geroago, Boko Haramen parte izandako soldaduei amnistia emango zitzaiela adierazi zen, betiere, deserradikalizazio prozesu baten ondoren, eta berriz, ez ziren adin txikikoak kontuan hartu (The Guardian Nigeria, 2018b). Egun arte, ez da inolako bake-akordiorik sinatu Boko Haram taldearekin DDR programa bat behar bezala betetzeko. Egia da, ordea, gobernuak amnistia eskaini diela, deserradikalizazio-programen bidez, 2.000 pertsona baino gehiagori (Sunday, 2020).

Egia da Nigeriako ipar ekialdean abian den gatazkaren muga operatiboek haurren desmobilizazioa zailtzen dutela neurri handi batean, eta gatazkaren ondorengo testuinguru baketsuetan oinarritutako metodoak eraginkorrak edo iraunkorrak izatea zailtzen duela. Hala eta guztiz ere, aurreko lerroetan adierazitakoak haurren gizarteratze prozesuek izan dituzten emaitzak eskasak direla erakusten digu, seguraski, testuinguru kulturala sakonki ulertzeko gaitasuna eman ez delako. Horregatik, azkeneko urteetan, gizarteratze komunitarioaren proposamenak indarra hartu du. Hala eta guztiz ere, gizarteratze komunitarioari ekin aurretik, honako galdera planteatzea guztiz zilegia da: zein zailtasun nagusik oztopa dezakete haur soldaduen gizarteratzea ?

4.1.2 DDR programek aurkezten dituzten zailtasun praktikoak

Adinarekin ez ezik, agentziarekin, generoarekin eta erantzukizun penalarekin lotutako zailtasun praktikoek arazoak sortzen dituzte haurrengan zentratutako DDR programak inplementatzean (Haer, 2017:452).

Hainbat diziplina hasi dira fenomeno horiek aztertzen eta ikerketa horiek gerretan haurrak erabiltzen lagun dezaketen faktore sozioekonomiko, politiko eta demografiko zabalak aztertu dituzte, baita horiek nola eta zergatik biltzen diren ere. Ikerketa sozioekonomikoen, adibidez, globalizazioak, gazteen ugaritasunak eta arma txikien garapenak eragina izan dutela azpimarratu dute. Beste ikerketa batzuek haurren eskaintza eta eskaria aztertu diuzte, hau da, zerk motibatzen dituen haurrak talde armatuetara batzera eta zerk motibatzen dituen talde armatuak haiek errekrutatzen. Ikerketa hauek, ordea, ez dira araua, izan ere, gehienetan, DDR programetatik kanpo uzten dira adin txikikoak (Haer, 2017:453), funts nahikorik ez duten edo bestelako programa desegokietan sartzeko (Singer, 2015:184), alegia, Nigeriako kasuan bezala.

Haurren eta helduen arteko adin-mugek adin txikikoak DDR programetan parte hartzeko zailtasunak aurkezten dituzte, besteak beste, jaiotza- eta nortasun-erregistrorik ez dagoelako (Brett eta McCallin, 1996:42). Hala, haurren parte-hartzea helduen menpe

geratzen da eta horrek, arazoak sortu ditu; izan ere, nazioarteko komunitateak DDR prozesuak bideratzerako orduan herriko helduengan edo komandanteengan konfiatzen duelako eta ariketa horiek, askotan, herrixkan dauden botere ildoak errotzen dituzte (Lee, 2009:27). Adibidez, parte-hartzaile zerrendak herrixkako buruzagiaren seme-alabak, tokiko miliziako komandante ohia edo imana barne hartzen dituztela aurkitu da, nahiz eta haur horiek ez ziren talde armatu batean sartuta egon.

Beste zailtasun bat erantzukizun penalarena da. Izan ere, giza eskubideen aldeko erakunde batzuek justiziaren beharra onartzen badute ere, hori ez da automatikoki haurrengan zentratutako DDR programetan islatzen. Dauden programa gehienak normalizazio-jardueretan zentratzen dira, hala nola, oinarrizko hezkuntzan eta jolas-programetan, epaitzean baino gehiago (Haer, 2017:458). Hemen datza programa horietako askoren akats nagusietako bat: haurtzaroa kontzeptu idiliko batera sinplifikatzen dute, borondatezko erreklutamenduaren existentzia eta haurren zein gazteen agentzia boterea alde batera utziz.

Haur soldadu ohiei beren ekintzen ardura emateak biktimak eta komunitatea zuzentzen lagun dezake, bakea aurkitzeko eta haien bizitzekin aurrera jarraitzeko (Lafayette, 2013:306). Hori bereziki garrantzitsua da, izan ere, soldadu ohi horietako askok laguntza humanitarioa jasotzen dute, eta horrek, askotan, ideia publiko bati forma ematen dio: haur soldadu ohiak 'saritu' egiten dituzte beren ekintzengatik; bitartean, haien biktima zibilak ez dira aitortzen, ezta 'konpentsatu' ere, eta horrek komunitateetan bidegabekeria-sentimenduak areagotzen ditu (Haer, 2017:458). Egia da, ordea, justiziaren eta haur horien gizarteratzearen arteko oreka lortzea zaila dela, batez ere, DDR programek errugabetasunaren diskurtsoa babesten dutelako eta beraz, ez dutelako haurtzaroaren eta erantzukizunaren arteko lotura egiten. Hemen, dudarik gabe, hutsune batekin topatzen gara, izan ere, DDR programak diseinatzen eta ezartzen diren moduaren arabera, egia esateko ahaleginek erraztu edo zaildu egin dezaketelako haurrak gizarteratzeko aukera (Duthie eta Specht, 2010:1). Dudarik gabe, egia esateak gatazkaren eta hurrek gatazkaren baitan izandako zereginaren deskribapen inpartziala ematen lagun dezake, halaber, DDR programek egia esateko zeregina ez dute bere gain hartzen; horrek, haurren gizarteratzeak izan dezakeen eragin negatiboa handituz (Duthie eta Specht, 2010:2).

Zalantzarik ez dago DDR programek onurak ematen dizkiela haurrei, hala ere, presente eduki behar dugu gatazka armatuaren markoan sufritu duten talde bakarra ez direla. Horregatik, DDR eta konponketen onuren arteko oreka ezartzea garrantzitsua da. Alde batetik, herritarren artean konfiantza berrezartzeko eta bestetik, gizarteratzea bideratzeko. Hala bada, tokiko justiziak gizarteratzea erraztu dezake, betiere, praktikotasuna, tokiko legitimitatea, nazioarteko arauen errespetua, gaia eta mugak aztertuz (Duthie eta Specht, 2010:3). Izan ere, tokiko justizia-prozesuen erabilerak genero-joerak dituela edo tokiko praktika eta egituretan errotuta daudela ezin dugu ahaztu. Hala, generoak ere DDR planteamenduei erronka handia proposatzen die. Neska gutxik izena ematen dute DDR programetan eta horren adibide, Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdeko bost probintzian egindako ikerketa bat dugu, zeinetan 23 neska desmobilizatu zituzten 1718

mutilekin alderatuta (Wessels, 1998: 635). Horren zergatia, autore askoren aburuz, trauma osteko sindromea litzateke, zeina neskek eta emakumeek pairatzeko aukera handiagoa den (Haer, 2017:459).

DDR programak pertsonalizatua izan beharrea tratamendu unibertsalista baten ideian oinarritzen direnez -hau da, haur soldadu guztiek funtsean ezaugarri eta esperientzia berberak dituztela suposatzen dute eta, ondorioz, asistentzia mota bera jaso beharko lukete, esperientzietan eta beharretan dauden aldeak ez dira kontuan hartzen askotan. Jakinda, neska soldadu ohien esperientziak ez datozela bat mutil soldadu ohien esperientziekin (Singer, 2015:185).

Azkenik, DDR-arekin eta prozesu penalekin lotutako hiru zailtasun nagusi ditugu: lehenik, hemezortzi urtetik beherako haurrak prozesatu behar diren; bigarrenik, prozesatzekotan edo prozesuetan lekuko gisa parte hartzekotan nola tratatu behar diren; eta, hirugarrenik, haurrak indar armatuetan legez kanpo errekrutatzearen arduradunak auzipetzeak izan ditzakeen ondorioen inguruko zailtasunak (Duthie eta Specht, 2010:3).

Ikuspegi orokor honek erakusten duena da oraindik galdera akademiko asko daudela erantzun gabe. Honek ez du esan nahi DDR programak ezabatu behar direnik, baizik eta haurrentzako DDR programa bakarra garatu beharrea, malgutasunez, esperientzia eta behar ezberdinetara moldatu beharko liratekela eta, zeregin horretan, haur soldaduen gizarteratzea, abegi komunitario batetik egitea baliagarria izan daitekelaren usteak daude.

4.1.3 Gizarteratze komunitarioa

Soldadu ohiak hartzen dituzten komunitateek askotan ez dute haur horiek hartzeko eta asimilatze gaitasunik. Beraz, banakako gizarteratze-programak ere komunitatean oinarritutako garapen- eta gizarteratze-programekin konbinatu behar dira, programa horiek, haur soldadu ohiei ez ezik, komunitateari ere mesede egiten baitie. Izan ere, haur soldaduen premietan soilik zentratzeak haur horiek baztertzeko edo estigmatizatzeko arriskua dakar, eta horrek kalte egingo lioke adin txikikoen gizarteratze arrakastatsua lortzeko aukerari. Hala bada, adiskidetzeta eta gizarteratzea sustatzeko oreka egon behar da borrokalari ohientzako onuren eta komunitate hartzaileentzako onuren artean (Gislesen, 2006:43) eta marko honetan, gizarteratze komunitarioa azaltzen zaigu.

Gizarteratze komunitarioa, gatazka osteko testuinguruetan gizarteratze erreal bat emateko ziurgabetasunen eta, oraindik, latente dagoen indarkeria pizteko arriskuen ondorioz planteatzen hasten da; honek, soldadu ohiak, autoritateak, nazioarteko organismoak eta komunitatea bera inplikatzeko erronka moduan. Gizarteratze-ikuspegi hau bizikidetzeta, bake- eta adiskidetzeta-prozesuetan fokuratzen da, bide horretan, erantzun beharreko hainbat galdera sortzen direlarik: posiblea al da gizarteratuen eta biktimen programak bateratzea, aldi berean, erreparazioa eta justizia bermatuz? posiblea al da komunitatea ere gizarteratze prozesu baten bidez onuradun agertzea? Nola lor daiteke komunitate hartzaile batek errespetuzko espazio seguruak sortzea? Nola atxikitu diezaiokegu gizarteratze komunitario baten programari generoarekiko eta haurren eskubideekiko zintzoa zaion perspektiba?

Gizarteratze komunitarioan, komunitateak bere beharrak identifikatzeko eta definitzeko prozesuan parte hartzen du, bai eta borrokalari ohiak gizarteratzeko erabili beharreko baliabideak zehazteko prozesuan ere. Esan genezake, beraz, komunitateak eta familia-nukleok erramintak eta gaitasunak bere gain hartzen dituztela gizarteratzearen planteamenduan eta garapenean parte hartuz eta hau, segurtasuna errotzeko gakoa da.

Baina, ba al dauka gizarteratze komunitarioak gaitasun nahikoa epe luzerako garapena mantentzeko? Horretarako, komunitateei, behar bezalako gaitasunak eta baliabideak esku aldatzea beharrezkoa da, hala ere, jakin badakigu, gizarteratze prozesuan eszenatoki ezberdinekin topatzen garela eta herritaren arteko tentsioak ohikoak diren errealitateak direla. Tentsio hauen baitan, problematika askoren artean, mendeku zikloak eta estigmak kokatzen ditugu eta horiei aurre egiteko, erreparazioa bermatzea beharrezkoa da. Baina, nola bermatu dezakegu erreparazio erreal bat gatazka osteko testuinguru konplexu batean? Edo, are gehiago, Nigeriako testuinguru batean non ez den orain arte bake akordiorik sinatu?

Galdera horien erantzun moduan, Trujillo eta Gómez-ek (2018) adiskidetza prozesua aipatzen dute, bai taldearen ikuspegitik baita norbanakoarenetik. Lehenik, maila indibidualean adiskidetzea gertatu behar da, tentsioaren parte diren bi aldeak euren izaera identifikatu dezaten eta bigarrenik, komunitateek kolektiboki eraikitako adiskidetze publikoa gertatu behar da. Egia da bi prozesuak eszenatoki ezberdinetan garatzen direla, ordea, aldi berean eman behar dira. Izan ere, gizartearen ekintza arduratsurik, gertaeren zergatirik, erreparaziorik eta sentsibilizazio pedagogiko kolektiborik gabe, nekez eman daiteke adiskidetze indibiduala (Trujillo eta Gómez, 2018).

Puntu honetan, hurrengo galdera planteatzea zilegia litzateke: posiblea da, beraz, hainbeste tentsio sortu dituen eta sortzen jarraitzen dituen gatazka testuinguru batean, adiskidetze prozesuen bidez, haur soldaduen gizarteratze erreal bat ematea? Bai, prozesu pedagogikoen bidez (Freire, 1972). Betiere, pedagogiak, komunitateetatik sortuak izan badira eta komunitatearen baldintza sozioekonomiko, politiko, historiko eta kulturalen irakurketa aproposak egiten baditu (Trujillo eta Gómez, 2018).

Gizarteratzea ez da estatuari dagokion gai erabat politikoa, baizik eta eguneroko ekintza kolektiboen bidez elikatzen dena. Beraz, gizarteratzea, prozesu pedagogiko eta ezagutza-eraikuntza-prozesu kolektibo bezala ulertu behar dugu, zeinak elkarriketen, antolaketaren eta partaidetzaren indartzea eskatzen duen. Eta hemen, jarduera politiko-pedagogikoa den hezkuntza-popularra kokatzen dugu. Hau, XX. mendean eta Paulo Freire pentsalari brasildarraren eskutik kontzeptualizatzen da. Geroztik, modu askotan definitu da, ordea, denek honako baieztapenean bat egiten dute: hezkuntza popularra etengabeko eraikuntza parte-hartzaile kolektiboa da, zeinaren bidez hegemonikoa den sistemaren kontrako ikuskera kritikoa garatzen duen bai politika askatzaileen bidez baita subjektuen kontzientziaren bidez (Torres, 2011).

Hezkuntza-popularrak egungo sistemek proposatzen dituen gizarteratze-logiken aurka egiten du, besteak beste, indarkeria, beldurra eta izua naturalizatzen dituelako (Trujillo

eta Gómez, 2018). Nahiz eta askotan Boko Haram bezalako talde batek eragindako minak, bakea eraiki ezina den markoan kokatzen gaituela uste, errealitateak, bizitako testuinguru historikoaren eta gaitasun parte-hartzailearen, beraz, ezagutzaren eraikuntza kolektiboaren bidez bake-markoak sor daitezkeela erakutsi digu. Egia da, ordea, perspektiba parte-hartzaile hauek ez direla monolitikoak eta beste era batera garatu daitezkeela. Azken batean, elkarrizketek eta disidentziak moldatzen ditu perspektibak (Singh, 2021:80).

Ipar globalak hezkuntza-perspektibak hezkuntzaren kritikotasunean arreta jartzen duen bitartean -hau baita sistema militaristak eta sexistak legitimatzeko edo deslegitimatzeko tresna-, hegoalde globalak esperientziaren politizazioan, erresistentzian eta askapenean jartzen du arreta. Horregatik, haurren itzulera errazteko eta familiek edo komunitateen arbuiatzea saihesteko, DDR programekin batera sentsibilizazio-ahalegin handiak egin behar direla frogatu da. Sentsibilizazio-kanpaina horiek bakearen eta adiskidetzaren aldeko hezkuntza sustatzeko diseinatu dira, bai eta familiak edo komunitateak haur soldadu ohiei buruz dituzten aurreiritzi eta kontzeptu okerrak zuzentzen laguntzeko ere. Sentsibilizazioak, komunitateei borrokatzen duten haurrek giza eskubideen aurkako abusuak jasan dituztela ulertzen laguntzen du (Gislesen, 2006: 33).

Gainera, familia, haurrak elikatzeko eta zaintzeko funtsezko elementua dela frogatu da. Horregatik, haur soldaduen gizarteratzeak suposatzen duen sendatze psikologikoa lortzeko helburuz, familia bateratze bilatzen da. Testuinguru honetan, Chandra Talpade Mohanty (1994: 152) honakoa adierazten du: familia izatearen esperientziaren teorizazioa eta politizazioa ezinbestekoa da praktika pedagogikoak ezagutzaren kudeaketa, sistematizazio eta kontsumo hutsean baino eremu handiagoan zentratu nahi badira. Mohanty, “bizitako esperientzian” fokuratzen da, hau baita ezberdintasunak ezartzen dituen kolonialismoa, patriarkatua, kasta identitateak, klasea, erlijioa eta bestelako identitate elkarreragileekiko.

Nigeriako gatazka armatuaren markoan proposatu nahi den jarduera politiko pedagogiko baten aurrean, garrantzitsua da kolonialismo eta genero ikuspegia presente edukitzea. Lehenik, ipar globaletik datozen proposamenek, ez dietelako behar bezalako arretarik jartzen «boterearen inguruko ezberdintasunei, ahotsaren eta agentziaren arazo konplexuei eta erdigune eta bazterrei» (Mohanty, 1994:192). Bigarrenik, mendebaldeak haren ezagutza sistemaren nagusitasuna normalizatzen duelako (Said, 1997:54) eta azkenik, «arraza, eremu geografiko eta aurrekari sozioekonomiko zein linguistiko berak partekatzen dituzten pertsonak esperientziak eta sufrimenduak modu berdinean bizitzen dituztelaren ideia» baztertzea beharrezkoa delako (Shirazi, 2011: 280).

Beraz, nahiz eta emantzipazio-promesa unibertsalaren asmoa ona izan, beharrezkoa da subjektua bere ingurune sozial eta politikotik bereizten ez dituzten hezkuntza esku-hartzeak aurrera eramatea, bestela, hierarkia sozialak errotzeko arriskua dago (Singh, 2021: 84). 1994. urtean, bell hooksek, *Teaching to Transgress* obran, «hezkuntza, pedagogia konprometitu baten mende dagoen askatasun ekintza dela» adierazi zuen, non emozioei eta sentimenduei erreparatu behar zaion, horrek, zuri-beltzaren esperientziak baldintzatzen baititu. Mendebaldeko aditu positibisten txantiloiak baztertzea beharrezkoa da arraza eta

kolonialismoa bezalako opresioak kontuan hartzeko eta agentzia bermatzeko. Pedagogia kritikoa, botere-harremank ezagutzaren eraikuntzan nola jarduten duten azalpenean fokuratzen da eta irakasle/ikasle subjektuak aldaketa eraldatzaileko eta kontzientzia kritikoa eraikuntzarako eragileak izan daitezke defendatzen du, honen isla, lehen aipatutako Paulo Freire-ren Zapalduen Pedagogia (1972) dugu⁵.

Sierra Leonan, gobernuaren erronka hori gainditzen saiatu zen, garapen komunitarioko programa paralelo bidez. Komunitatean oinarritutako gizarteratze-programaren elementu nagusiak hezkuntzarako edo lanbide-heziketarako aukerak ematea eta tokiko gaitasunak garatzea izan ziren, eta neurri horiek komunitate osoari mesede egin zioten (Gislesen, 2006:43). Nigerian, ordea, orain arte ez da antzeko programarik garatu. Hori horrela, eta adierazitakoa kontuan hartuta, argi dago gizarteratze komunitario marko batean, hezkuntza, gatazka bideratzeko, botere politiko jakin batzuk antolatzeke, egikaritzeko eta legitimatzeko tresna ere badela (Singh, 2021:86). Baina, posible al da gizarteratze komunitarioa bezalako prozesu konplexu eta dinamikoak, ezagutza- eta eraikuntza-prozesu kolektibo bezala bideratzea epe luzean mantentzeko? Bai, horretarako tresna bat Indarkeriaren aurkako Alternatibak proiektua izanda.

Puntu honek argi utzi du Nigerian ez dagoela gizarteratzea emateko marko egokirik, besteak beste, DDR programak ez direlako, orokorrean, eraginkorrek gatazka bere horretan diharduen bitartean (Pauletto eta Patel, 2010: 50), baina horrek ez du esan nahi haur soldaduen esperientziak gizarteratzearen baldintzetatik bereizi behar direnik, izan ere, bereziki garrantzitsuak dira faktore sozioekonomikoak, kulturalak eta politikoak DDR estrategia eraginkorrek ezartzeko. Hala bada, honako puntuak kontuan hartzea interesgarria litzateke adin txikikoak eta gazteak gizarteratzea helburu baldin bada:

Lehenik, haur soldaduak konponbide politikoak behar dituen arazo politikoa dela onartu behar da, hots, erakunde politiko eta judizialek jokatzen duten papera azpimarratzea beharrezkoa da, adibidez, adin txikikoen espetxeratzeek planteatzen dituzten erronkei aurre egiteko. Bigarrenik, haur soldaduen DDR programei buruzko ikerketa gehiago egitea beharrezkoa da eta ez soilik haurrei egoera ezberdinei aurre egiteko estrategiak irakasteko, baizik eta komunitateen konfiantza higatzeari uzteko ere, azken batean, gizarteratze programek huts egiten baldin badute, itxaropena galtzeko sententzia egongo da. Hirugarrenik, gatazka bakoitzaren idiosinkrasia kontuan hartzea beharrezkoa da. Laugarrenik, tokiko ohiturak aztertzea beharrezkoa da; bai mendebaldetik proposatzen diren estrategia egokiagoak praktikan jartzeko, baita haurrek tokian tokiko gizarteratzearen papera buruz hausnartzeko ere. DDR programetan, baita ondoren datorren aroan, haurren agentzia sustatzea garrantzitsua da. Azkenik, egiturazko arazoei, adibidez, pobrezia aurre egiteko ahalegin hitzartuak egin behar dira, eta gatazka armatua erabat etetea epe laburrera

⁵ Azpimarratu behar dugu, pedagogia kritikoa Freire (1970) bezalako akademikoek idazkietan erresonantzia aurkitu baino askoz ere lehenago, Phule eta Malla bezalako feministek jadanik nabarmendu zutela kastak eta klaseak zuten eragina emakumeek bizitako esperientzietan eta beraz, hezkuntzan (Singh, 2021:85).

helburu idealistegia izan badaiteke ere, bitartean, egiturazko politika errealistagoak ezartzea beharrezkoa da (Pauletto eta Patel, 2010: 50).

4.2 AVP programak

Ikusi bezala, 1992. urtetik hona Nazio Batuek bakearen finkapena instituzionalizatzeko prozesuan lidergoa izan dute. Horrek, ordea, ez du esan nahi bake-eraiakuntza prozesu horretan adostasun unibertsalik adierazi dutenik (Dixon, 2021:4) edota instituzionalizatzen ari den bakea sendotzeko bertsio partikularrak kontuan hartu direnik (Barnett eta besteak, 2007:37). Azken ideia honen isla, DDR programek adin txikikoak gizarteratzerako orduan eman dituzten emaitza eskasak dira; bakea finkatzeko unibertsalizatu den modua mendebaldeko liberalismoaren historian eta tradizio mugatueta oinarritzeagatik (Bain, 2006: 525) lortutako emaitzak, alegia.

Emaitza horiek aldatzeko helburuz, haurtzaroaren eta helduaroaren arteko esperientziak partekatzea beharrezkoa da (McEvoy-Levy, 2015:33). Gainera, analisi soziologiko askok, gazteak bake prozesu horietan sartzearen aldeko argudioak eman dituzte (Dixon, 2021:6), izan ere, askotan, gutxietsi egiten da gazteek eta komunitateek, bere horretan, bakeari buruz pentsatzeko eta hitz egiteko dutena (Berents eta McEvoy-Levy, 2015:119).

Bakea eraikitzeko prozesua inklusiboagoa izan dadin, adin txikikoek zein gazteek bizitako esperientziei balioa ematea eta bake liberalaren oinarriak zalantzan jartzea behar-beharrezkoa da (Dixon, 2021:19), hau da, bakea nolakoa den eta nola eraiki behar den ulertzeko tokian tokiko ikuspegietatik abiatzeak duen balioa aldarrikatzea behar-beharrezkoa da. Horrek, ordea, ez du esan nahi gizarteratze prozesuetan helduen edo elitearen ezagutzak lekurik ez dutenik espazio emantzipatzaile bat sortzeari buruz ari garenean, baizik eta ezagutza horrek lagundu nahi den komunitateen kontura ezin dela egin.

Jakin badakigu, gainera, legea eta nazioarte mailan proposatutako prozesuak mugatuak direla espazio emantzipatzaile bat sortzeari buruz ari garenean, are mugatuagoa, gatazka armatu baten markoan haur soldaduen gizarteratze erreal bat aurrera eraman nahi baldin bada. Testuinguru honetan, Garapenerako Nazio Batuen Programak (aurrerantzean, PNUD) eta Nazio Batuen erakunde arteko armagabetze, desmobilizazio eta gizarteratze taldeak, DDR programen baitan genero dimentsioaren azterketa egitearen beharra iradokitzen duen 2018ko txostenari erreparatzea interesgarria litzateke. Txosten horrek, DDR programen esparru kontzeptuala eskaintzeaz gain, gatazka armatuetatik datozen herrialdeetako indarkeria kausei, inpaktuei eta genero-dinamika espezifikoiei heltzeko abiapuntuak adierazten ditu. Are gehiago, DDR programen politikak ezartzeko gomendioak biltzen ditu. Esku artean dugun lanari dagokionez, interesgarria da seigarren gomendioan fokuratzea, hots, *indarkeriaren dimentsio ezberdinei heltzeko, NBEren sistemarekiko eta erakunde nazionalerako koordinazioa hobetzera* bultzatzen duen gomendioan fokuratzea. Izan ere, honakoa iruzkintzen da: «komunitatean eta, oro har, gizartean indarkeria babesten duten arauak, erakundeak eta jarrerak (indarkeriazkoak) eraldatzea epe luzeko prozesua da. DDR programa formala amaitu ostean, borondate politikoak eta finantza-baliabideek aurrera

jarraitu behar dute indarkeriaren erresilientzia indartzeko. Beraz, ezinbestekoa da DDR programen planifikatzaileak Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua (AVP) [...] bezalako garapen-programekin koordinatzea, programa hauek, epe luzeagoan mantendu daitezkeelako» (PNUD, 2018:51). Baina, zer da Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua?

Hala, puntu honek, helburu nagusi bat izango du: Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektuaren (AVP-aren, alegia) bidez, eta Nigeriako ipar-ekialdean pil-pilean dabilen gatazka armatuaren markoan, adin txikikoen gizarteratzea indartzeko eraginkorra izan daitekeen aztertzea. Bide honetan, bi azpi puntu nagusi izango ditugu. Lehenik, XX. mendearen amaieran planteatzen eta praktikan jartzen hasten den Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua azalduko da eta bigarrenik, errealitatera salto egingo dugu landutakoa Nigeriako markoak aurkezten dituen espezifikotasunetara moldatu daitekeen ikusteko.

4.2.1 *Hurbilketa kontzeptuala*

Paulo Freirek ekintzen bidez kontzientzia eta humanizazioa piztearen beharra azpimarratzen zuen (Freire, 1972) eta marko horretan, 1975ean, Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua (aurrerantzean AVP) proposatzen da: gatazka indarkeriarik gabe konpontzeko eta komunitateak eraikitzeko printzipioak oinarri hartuta, indarkeria- eta prekarietate-baldintza orokorreari erantzuten dion proiektua (Vaughn, 2017: 59).

AVP, gatazka eraldatzeko programa bat da, hots, gatazkari indarkeria fisikoaren, psikikoaren edo emozionalaren bidez aurre egiteko modu alternatiboak proposatzen dituen programa bat. Hau, mundu osoko boluntarioek zuzentzen dute eta 1975ean New Yorkeko Greenhaven espetxean garatzen hasten da bertako preso talde batek, bortxa fisikoa, batez ere gazteenen artekoa, murrizteko helburuz programa bat proposatu zutenean (Shuford, 1993). Hain arrakastatsua izan zen hiru eguneko tailerra, ezen Ameriketako Estatu Batuetako 41 estatuetara hedatu zela. Egun, AVP mundu osoan zabaldua dago eta Nazioarteko AVP elkarteak sortu zen 2006. urtean, 23 herrialdek parte hartuz; horietako bat, Nigeria delarik (AVP International 2006). AVP-aren funtsa, "indarkeriarik gabeko benetako komunitatearen" garrantzia azpimarratzea da eta horrela adierazten du John Shufordek (2009):

«Ez dago jakiterik eraldaketa, aldaketa interpersonal/psikologikoen ondorioz gertatzen denik edo ez, ordea, horrek ez du garrantzirik. Botere eraldatzaileak, funtzionatzen du eta benetako komunitate baten emaitzarik boteretsuena da. Nire ustez, zenbat eta gehiago enfokatu benetako komunitate baten lotura eta eraikuntza, batez ere baztertuak eta isolatuak sentitzen garenekin, orduan eta handiagoa izango da biziko dugun bakea»⁶.

⁶ «There is no way to know if the transformation occurs because of the interpersonal/psychological changes or if the transformation is spiritual in nature, which then leads to the interpersonal/psychological changes, and it doesn't matter. TP [transforming power] works, and it is the most powerful outcome of true community. I believe the more we focus on connection and building true community in our lives, especially with those of us who feel marginalized and isolated, the more we will all experience peace».

Jakin badakigu, gatazken erdigunean, orokorrean, botere desoreka nabarmen bat dagoela, eta biolentzia da, preseski, botere-abusu horren adierazpen garrantzitsuenetako bat. Zentzu honetan, AVP-k Johan Galtung (1990) biolentziaren ulerkerarekin bat egiten du, ulertzen baitu indarkeria elkarren mendeko hiru dimentsiotan adierazten dela: zuzeneko indarkeria (igorle batek eragindakoa, hots, Boko Haramek), egiturazko indarkeria (egituratik bertatik datorrena, hots, Nigeriako gizarteak errotuta dituen logika patriarkalak eta hauen isla Boko Haram taldean), eta indarkeria kulturala (gure markoan, erlijio islamiarra). Hala, AVP- k fokua jartzen du gizarteratze prozesuak berarekin dakartzan indarkeria horien eraldaketa baketsuan, hori, komunitateko parte- hartzaileen zaintza-errespetu dinamiken bidez lortzen baita.

AVP-ren pedagogia hausnarketa sakon, elkarrizketa zintzo eta jarduera dibertigarrien konbinazio bat da (Shuford, 2009). Normalean, bizpahiru eguneko tailerrak dira eta parte-hartzea, teoriarik behintzat, borondatezkoa da. Tailerren ardatza esperientziaren bidezko ikaskuntza da, hau da, tailerren testuinguruan parte-hartzaileek beren esperientzietatik ikasi eta ekarpenak egiten dituzte. Ekarpene horiek funtsezko hiru baieztapenak dituzte; batetik, norbera egindakoagatik erantzule dela, bestetik, garrantzitsua dela komunitate baten parte izatea eta azkenik, gatazka bati aurre egitea ez dela borrokatzea edo ihes egitea (Walwrath, 2001: 698). Gainera, AVP tailer guztiak baieztapenaren, komunitate eraikuntzaren, lankidetzaren, komunikazioaren eta arazoaren konponketaren inguruan diseinatzen dira (Hackland, 2007: 5).

Egindako ikerketa guztiek, AVP motatako tailerrek oso azkar funtzionatzen dutela ikusarazten dute -kontuan hartuta 3 eguneko tailerrak izan ohi direla- indarkeriarako joera duten pertsonekin, zeinak txikitatik bortitzak izan diren. Shuford (2009: 3), batetik, AVP tailerrek biziraupena, arrazionaltasuna eta hitzezko komunikazioa posiblea egiten duten elementuak biltzeari esker portaera aldatzea tasa altuak direla argudiatzen du eta Sloanek (2002: 21), bestetik, portaera aldatzea tasa altuak izatea harrigarria ez dela argudiatzen du, izan ere, gizartearen aurkako portaeretatik gizartearen aldeko portaeretara aldatzeko egin behar den “gauza bakarra” inflexio-puntu batera ailegatzea da, hots, lineala ez den eta, izan ere, egun gutxitan konfiantzarekin lortzen den puntura ailegatzearekin nahikoa delako. Izan ere, eta dirudenez, parte-hartzaileek besteekiko konexio-sentsazioa sentitzen dutenean, beren burua eta besteak modu desberdinean ikusten dituzte. Gainera, ikerketek erakutsi dute, aldatzea hori ez dela aldi baterako, baizik eta, neurri handi batean, mantendu egiten dela (Lamb eta Snodgrass, 2017:7).

Tailerren egitura eta edukiei dagokionez, orokorrean, lau saio nagusitan banatzen da eta saio bakoitza gai nagusi batean zentratzen da, gaiak, baieztapena, komunikazioa, lankidetzaren eta komunitatearen eraikuntza direlarik. Proposatzen diren jarduerak guztiak gaiarekin lerrotatuta daude eta sekuentzialki gero eta konplexuagoak dira, hauek, gizarte-langileek edo psikologoek bideratzen dituzte kalteberatasunen berri emateak deserosotasuna eragiten badu laguntza bermatzeko. Prozesua, parte-hartzaileen baieztapenekin hasten da kalteberatasunak agerian uzteko, eta, ondoren, komunikatuz, gatazka pertsonal horiek bikoteetan eta talde txikietan sormenez eraldatzeko ariketak egiten dituzte. Helburu

pertsonalak argitu ostean, parte-hartzaileek beren helburuak taldearen helburuekin integratzeko lan egiten dute eta integrazio hori adostasun-prozesu baten bidez egiten da parte-hartzaileek inklusioari eta talde-lanari buruz duten kontzientzia areagotzeko (Lamb eta Snodgrass, 2017:10).

Laburbilduz, proiektu hau tailer ezberdinetan egituratzen da eta guztiek, pedagogia parte-hartzaile bat erabiltzen dute, jokoak, jarduerak, elkarrizketak eta hausnarketa kritikoak erabiliz ikaskuntza afektibo sakona lortzeko. Argi dago parte-hartzailearengan oinarritutako prozesua, hartu emanezko prozesu bat dela, non ezagutza modu aktiboan eraikitzen den eta parte-hartzaileak gatazkak konpontzeko sormen-moduak barneratu eta garatzera bultzatzen diren. Gainera, eraikitako ezagutza eskuratzeko parte-hartze komunal hori ikaskuntza afrozentrikoarekin bat egiten du, izan ere, ezagutza absolutuaren existentzia ukatzen eta ezagutza komunalaren eraikuntza nabarmentzen du (Lamb eta Snodgrass, 2017:7). Gisa horretan prozesu emozional bati buruz ari garela esan genezake, non parte-hartzaileei gatazkatsu gisa interpretatu daitezkeen egoeren sortzaile aktibo direla erakusten zaien eta, aldi berean, etorkizunean sor daitezkeen gatazkak kudeatzeko trebetasun praktikoak ematen zaizkien.

Funtsean, esperientzia-tailerrak dira eta, hauek, belaunaldiz-belaunaldi errepikatuz joan diren patroiak aldatzeko trebetasuna ematen dute (Lamb eta Snodgrass, 2017:6). Trebetasun horiek, gainera, funtsezkoak dira gizarteratze prozesuak eraginkorrak izan daitezen, baita komunitateetan pedagogia ez-bortitzaren filosofia barnera dadin eta botere-harreman tradizionalak alde batera utz daitezen, hots, espazio emantzipatzaile bat sor dadin. Hala bada, hurrengo azpi puntuan, Nigeriako kasuari AVP-a aplikagarri zaion aztertzeari ekingo diogu.

4.2.2 AVP-aren eraginkortasuna Nigerian

Azpi puntu honek, helburu nagusi bat izango du: Nigeriako ipar-ekialdean pil-pilean dagoen gatazka armatuaren markoak aurkezten dituen espezifikotasunei AVP-aren bidez heltzea posiblea den ondorioztatzea adin txikikoen erresilientzia indartzeko eta bakea epe luzeagoan mantentzeko helburuz. Horretarako, lehenik, testuinguruak aurkezten dituen problematika ezberdinak kontzeptualizatuko ditugu.

DDR programa formala amaitu ostean, borondate politikoak eta finantza-baliabideek aurrera jarraitu behar dute indarkeriaren erresilientzia indartzeko eta epe luzeagoan mantentzeko, kasu honetan ere, adin txikikoen gizarteratze erreal bat emateko. Programa formal horien bidez, bakea sendotzeak gerrako zauri sozialak sendatzen, gatazka suntsitzaileak sortzen dituzten sistemak konpontzen eta pertsonak seguru mantentzen dituztela suposatzen bada ere, azterlan kritikoek bakea sendotzeko proiektu liberalek zentzu horretan dituzten mugak mahaigaineratu dituzte (Berents eta MacEvoy-Levy, 2015:115), muga horietako bat, haur eta gazteen ekarpenak aintzat ez hartzea delarik.

Egunerokotasunean bakea eraikitzeko ekintzak, funtsean, espazioaren eta espazio horretan jarduten dutenen arabera definitzen dira (Berents eta MacEvoy-Levy, 2015:116),

beraz, nola da posible Boko Haram talde armatuko kide izan den adin txikikoa edo gaztea bake-egituren eta –praktiken parte izateko ahaleginak egitea, baina, aldi berean, egitura eta praktika horien eraikuntzan hausnartzeko edo hitz egiteko duten ahalmena gutxiatea? Modu horretan, komunitateak, emantzipazio-gune izatetik gazteei gatazkaren errua eta indarkeria politikoaren zikloak haustearen zama leporatzeko gune bihurtzen dira (Berents eta MacEvoy-Levy, 2015:120). Hala eta guztiz ere, argi utzi behar da botere-egiturak eta politikak, formalak zein informalak izan, gazteak aintzat ez hartzeko edo baztertzeko balio dezaketela eta azterketa askok jadanik nabarmendu dutenez, gazteek gatazka baten ondorengo inguruneetan duten konpromisoari eta gazteen premiei jaramonik ez egiteko arriskua, gatazka potentzialki berritzea dela (Berents eta MacEvoy-Levy, 2015:123).

Lehenengo problematika honek zera erakusten digu, gazteek gatazka baten ondorengo inguruneetan duten konpromisoari eta gazteen premiei jaramonik ez egiteko arriskua, gatazka potentzialki berpiztea dela (Berents eta MacEvoy-Levy, 2015:123). Honek, ordea, ez du esan nahi adin txikikoak eta gazteak gatazkaren eta indarkeriaren biktima ez direnik; baizik eta kontzeptualizazio horrek ezin duela ezabatu eta ukatu hauek bakearen eraikitzaile gisa dituzten esperientzia anitzak. Aldi berean, ere, okerra litzateke bake-eraikitzaile gisa dituzten esperientzia horiek guztiak gerraosteari lotuta dauden min sakonez inguratuta daudela kontuan ez hartzea. Azken batean, gatazkaren testuinguru soziopolitikoaren azterketa egiten den moduan, gerrak eragindako haurren diagnostiko psikologikoa egitea ere garrantzitsua da mendebaldeko esku-hartze psikologikoak desegokiak izan daitezkeela ulertzeko.

Boko Haram taldetik atera diren adin txikikoek oroimenaren gaineko borroka biziak dituzte oraindik: zer gogoratzen duten, zer ahazten zaizen eta zein helbururekin (Parashar eta Orjuela, 2021: 409). DDR bezalako programa ofizialek, linealek, nazioak nola berreraikiko diren eta bakea sendotzeko misioek nola jardungo duten ezartzen dute. Puntu honetan, Nigeriako testuinguruan aplikatu nahi izan diren nazioarteko programek aurkeztu duten bigarren problematikarekin topatzen gara, hots, traumaren kontzeptualizazioarekin zerikusia duen problematika. Adierazi bezala, subjektibotasuna oso garrantzitsua da AVP-ren markoan, azken finean, posiblea al da gerrarekin lotutako esperientzia traumatikoa gizarteratze prozesutik bereiztea? Nola iker ditzakegu hertsapenezko esperientziak trauma "merkantilizatu" gabe? AVP bezalako tailer bat antolatzerakoan, noren bizipenak nagusitzen dira eta zergatik?

Trauma, 1990eko hamarkadaz geroztik aztertua izan da diziplina anitzetan, baita gizarte zientzietan ere. Nahiz eta arlo ezberdinetatik heldu zaion, adostasunak existitzen dira honen kontzeptualizazioan: trauma, esperientzia isolatua da (Ketola, 2021: 241) eta hau, beldurrarekin, kaosarekin eta ziurgabetasunarekin lotzen den esperientzia da. Traumak, pertsona batek duen ulertzeko gaitasunean eragiten du honek duen ustekabeko izaera dela eta (Hutchison, 2016: 98) eta gainera, trauma irudikatzeko hizkuntza faltak, esperientzia traumatikoak komunikatzeko zailtasuna areagotzen du (Williamson, 2018: 75). Komunikazio falta hau, are zailagoa egiten da adin txikikoak komunitateetara bueltatzen direnean existitzen diren estigmak direla eta.

Traumaren ulermen medikalizatuarekin alderatuta, teoria feministaren, soziologiaren, politikaren eta antropologiaren arloetan idazten duten adituek esperientzia traumatikoen dimentsio kolektiboak nabarmendu dituzte, eta trauma diskurtso eta botere-harremanen bidez sozialki eraikia izan dena bezala kontzeptualizatu dute (Ketola, 2021: 242). Hots, trauma isolatu beharrean, "gizartean eraturako eta topaturako" esperientzia gisa uler daiteke (Hutchison, 2016: 54), honek, AVP-ak aurkezten dituen espazio emantzipatzaileen ideiarekin bat eginez.

Jakin badakigu, gainera, gizarteratze prozesuetan, adin txikikoek, babes-arazo larriei aurre egin behar dietela, batez ere, estigmaterekin eta gaitzespenarekin lotutakoei. Nigeriako iparraldeko komunitateek, orokorrean, sinesmenetan oinarritutako estigmatizazio orokortua dute, ororen gainetik, nesken inguruan. Familiek kategorikoki baztertzten dituzte adin txikiko neska gehienak, izan ere, Boko Harametik ateratzea lortzen duten neskek, "Boko Haramen emazte" izendatzen dituzte, zeinak, komunitatearen arbuioa erakustez gain, neska horiek bizitako tragedia baten bidez identifikatzen dituzte eta horrek, aldi berean, euren trauma iraunarazten du (Amusan eta Ejoke 2017: 58)⁷.

Neskek, oro har, arbuio-modu asko jasaten dituzte, hala nola, diskriminazioa, umiliazioa, irainak, errua edo eskola-jazarpena, bai familien, lagunen, bizilagunen eta irakasleen aldetik. Horren guztiaren ondorioz, isolamendu-egoera gogorren eta sufrimendu emozional handien aurrean kokatzen dira. Faktore eta esperientzia horiek guztiek hainbat ondorio dakartzate, eta horrek zaildu egiten du neska soldadu ohien gizarteratzea. Save the Childrenen 2005eko txostenak, "Forgotten Casualties of War: Girls in Armed Conflict" izenekoak, nesken aurkako abusuak ez ezik, jasandako giza eskubideen urraketen ondorioak zuzentzeko orduan aurkitutako zailtasunak eta neskek beren komunitateetan berriz integratzeko sortutako arazoak azpimarratu zituen. Ondorioztatuz, DDR programek arrakasta gutxiago dutela nesken kasuan, emakumeek beren familietara eta komunitateetara itzultzean jasaten duten zentsura eta gaitzespenagatik.

Horregatik, aurkitzen dugun beste problematika nagusietako bat gizarte-gaitzespena da, bai familiena, baita komunitateena ere. Halaberharrez, eta zalantzarik gabe, gizarteratzeko zailtasun handiena duten neskek sexu-abusuak jasan dituztenak eta etxera haurdun edo seme-alabekin itzultzen direnak dira (Snowdon, 2016: 10-12). Kasu honetan, AVP tailer batek espazio seguru bat eraiki dezake, non parte-hartzaileek (adin txikiko neskek arbuiatzen dituztenek, adibidez) beren suposizio inkontzienteak, askotan suntsitzaileak, azter ditzaketen eta gatazkak adostasunaren eta konpromisoaren bidez konpontzeko tresnak eskaintzen

⁷ Hemen, azken urtean eman den eta azaldutako estigma honen salbuespen bat aipatzea interesgarria litzateke. 2014ko apirilean, eskolan zeuden 276 adin txikiko neska bahitu zituen Boko Haramek. Gizarteratze prozesu horrek izan zuen oihartzun mediatikoari esker, estigmatizazio txikiagoa jasan zuten neskek komunitatera bueltatzerakoan (gogorarazi behar dugu, oraindik, 112 desagertuta jarraitzen dutela), izan ere, nolabaiteko onarpen sinbolikoa izan zuten, bizirik atera den Chibok-eko neska izate hutsagatik. Salbuespen hau kenduta, adin txikikoak, eta bereziki neskek, estigmatizazioa eta bazterkeria jasaten dituzte -eta, horrek, gizarteratzeko prozesuan neska horietaz abusatzeiko aukerak handitzen ditu-.

zaizkien, baita indarkeriazkoak eta arriskutsuak izan daitezkeen konfrontazioak (irainak, adibidez) murriztu ditzaketen komunikazio-trebetasunak ere.

Ukaezina da, beraz, adieraztea bakea sendotzea generoarekin zerikusia duen zerbait dela. Nigeriako ipar-ekialdeko bezalako testuinguru batean, non logika patriarkalek sistema osoa gobernatzen duten, gizarteratzea, askotan, genero-botere harremanen aldaketari aurre egiteko eta genero-arau eta -egitura sozialak eraldatzeko aukera gisa aurkez daiteke (Cockburn eta Zarkov, 2002). Ikuspegi hori gerra "erakunde sozial" gisa ulertzetik eta gatazka armatuaren amaieratik haratago dauden irismen handiko gizarte-harremanak eta komunitateak hautsi eta berrantolatzen dituen praktika batetik sortzen da. Halaber, eta Jugoslaviako Nazioarteko Zigor Auzitegian bortxatuak izan ziren eta bizirik atera ziren emakumeek emandako testigantza esperientzietan oinarrituz, gerraosteko lege prozesuen diseinuak emakumeek euren istorioak kontatzeko espaziorik uzten ez zutela ikusarazi zen (Mertus, 2004)⁸. Mertusek, epaiketak, "gizatasunik gabekotzat" eta "atzeraeragingarriztat" definitu zituen (Mertus, 2004: 112), are gehiago, emakumeek justizia lortzeko edo partaidetzaren bidez sendatzeko zituzten itxaropenak, bide horretatik, asetu ezinak zirela adierazi zuen. Ildo beretik, eta Ruandako auzitegien harira Brouneusek (2008) egindako lanak, emakumeek testigantza ematetik eratorritako genero-segurtasunik ezaren formak aztertu zituen, izan ere, genozidioan senarrak erailak izan ziren emakumeen ziurgabetasuna areagotu zen eta komunitateetan isolatu egiten ziren (Brounéus, 2008: 72).

Aipatutako kasuek, nesken eta emakumeen esperientzia kolektibo bati erantzuten diote, zeinak landua izan daitezen espazio demokratiko bat behar duten. Pruittek (2015: 169) iradokitzen duen moduan, gazteek bakearen eraikuntzan parte hartzeko espazio irekiak sortzea beharrezkoa da, baita genero-abegi on eta inklusiboa garatzeko espazioak ere eta hori ber hori da, alegia, AVP programak eskaini dezakeena: egoera ez konbentzionaletan -adin txikiko bat talde armatu baten baitan egotea, jadanik, egoera ez konbentzionala dela kontuan hartuta- ematen diren esperientziak, botere eraldatzailearen bidez agentzia eraikitzeak aukera. Norbanakoen agentzia erdigunean jartzeak, egiturazko mugak gainditzea suposatzen du: agentzia eraldatzailea delako, eta balio hori onartzeak, botere-harremanen aldaketa sustatzen baituelako gizarte tradizionaletan (Podder, 2015:55). Nire ustez, gainera, indarkeriarik gabeko ikuspegi pedagogiko batek funtzionatzeko gakoa, agentziaren baieztapenean datza eta hori ber hori da AVP programek, DDR bezalako programa formalak amaitu ostean, indarkeriaren erresilientzia indartzeko bermatu behar duten puntua epe luzeagoan emaitzak mantendu nahi badira. Azken batean, traumak sendatzeko, bakoitzak duen botere eraldatzailearekin konektatzeko, konfiantza izateko eta, aldi berean, komunitate bat sortzeko grinak istorio ezberdinen arteko konexio-loturetan dihardu.

Lege prozesuen diseinuen ildotik jarraituz, Nigeriako gobernuak haur soldaduen aurrean emandako erantzun operazionala hausnarketaren puntu honetara ekarriko dugu.

⁸ «It chops their stories into digestible parts, selects a handful of parts and sorts and refines them to create a new narrative – the legal anti-narrative» (Mertus, 2004: 113).

Ikusi bezala, erantzuna, orokorrean, haur soldaduen espetxeratzean oinarritzen da, beraz, beharrezkoa deritzot “zigor” kontzeptuari erreferentzia egitea.

Zigorra, normalean, sostengatzen gaituen sistemaren erdigunean kokatzen ohi dugu eta horrek, askotan, ez du eduki beharko lukeen funtzio zuzentzailea, besteak beste, adin txikikoak helduak espetxeratzeko diren egoera berdinetan espetxeratzeko direlako eta kartzela-esperientziak, euren gizarteratzea baldintzatzen dute, oro har, modu negatiboan (Montalvo, 2018: 88). Azken finean, espetxe-ingurua ez da babes-ingurua adin txiki baten ongizate fisiko eta mentalerako, are gehiago, hauek torturatzen baldin badira (Isokpan & Durojave, 2016). Honek, gainera, erradikalizatzeko arriskua areagotu egiten du (Nnam, 2018:39).

Haur soldaduen markoan, eta AVP tailerrak planteatzerako momentuan, entzute prozesuak garrantzi berezia hartzen du, bai zaugarria eta premia handiko testuinguru batez ari garela ulertzeko eta baita, haurrek euren egoerarekiko “sendatzea” nondik eraman nahi duten jakiteko. Ezagutze- eta erabakitze-espazio hau izateko eskubidea, ordea, ez zaie errespetatzen, besteak beste, Nigeriako gobernuaren erantzuna militarizatuegia delako eta horrek, alde batetik, langile zein azpiegitura zibilik gabeko testuinguru batean kokatzen gaitu eta bestetik, errepresio-politikei eta mota guztietako abusuei atea irekitzen die, hala nola, tortura, indarkeria, sexu-abusuak, judizioz kanpoko erailketak edo atxiloketa arbitrarioak, baita adin txikikoen kontra ere. Horrek berriro ere, adin txikikoak Boko Haram taldera hurbiltzeko arriskua areagotzen du.

Beharrezkoa da justizia prozesuak hastea eta adin txikikoak errespetuz tratatzea delituari eta auzitegiak proposatzen dituen aukerei dagokionez. Baita, genero-interpretazioa prozedurari aplikatzea ere. Beharrezkoa da adin txikikoa entzuna izatea eta edozein dela ere hasten den prozesua parte-hartze aktibo eta zuzena izateko aukera bermatzea. Beharrezkoa da, oro har, errespetu-, informazio- eta partaidetza-premiak asetzea. Horrek ez du esan nahi, alabaina, garrantzitsua ez denik adin txikikoak erreparazio betebeharrak ez arduratzea, azken finean, egindako kaltea aitortzea errespetuzko ekintza bat da eta biktimarengan erreparazio emozionala eta sinbolikoa eragiten du, aldi berean, komunitate-erreparazioa bideratzen duelarik. Horregatik, kalteaz eta kalte hori konpontzeko edo arintzeko betebeharrak ari garenean ez gaude soilik zigor soilaz ari, hots, haratago doan kontzeptu emozionalago, psikologikoago eta moralago bati buruz ari gara; zeina, jakina, AVP-ak planteatzen duen markoan landu daitekeen. Gogoratu besterik ez dugu behar, batetik, AVP-aren funtsezko baieztapen batek honakoa adierazten duela: norbera egindakoagatik erantzule da; eta, bestetik, AVP-ak, gehien bat, espetxeetan landu direla.

Hala, puntu honetara ailegatuta AVP bezalako pedagogia Nigeriako ipar-ekialdeko gatazka armatuan parte hartzen duten adin txikikoen gizarteratzean lagundu dezakeen galderari erantzuten saiatuko gara. Ukaezina da baieztatzea AVP bezalako esku-hartzeak ebaluatzeko zailtasunak daudela, besteak beste, programak mundu osoko boluntario taldeek zuzentzen dituztelako eta, ikuspegi-koherentzia dagoen arren, orain arte ez dira AVP-ren helburu eta emaitzak modu argian artikulatu ezta programaren kontzeptu nagusiak ezartzeko hizkuntza zehaztua erabili. Hala eta guztiz ere, martxan jarri diren programetan eraginkortasun ebidentzia handiak aurkitu dira (Shuford, 2001: 6). Goaz, bada, bi aipatzera.

AVP-aren eraginkortasuna aztertzeo helburuz, Sloane (2003) pertsonen arteko konfiantzari eta haserreari buruzko ikerketa bat planteatu zuen AEB-tako Delawareko estatuko espetxe batean. Haren hipotesia, AVP-ak autoestimua, autoeraginkortasuna eta pertsonen arteko konfiantza hobetzen dituela, eta horrek haserrea murriztea eta, beraz, portaera hobetzea dakarrela zen (Sloane, 2003:25). Haren aburuz, haserre-maila txikiak indarkeriaren intzidentzia murriztea dakarte, eta horregatik da interesgarria AVP-ak haserrea murrizten duen ala ez ondorioztatzea (Sloane, 2003:15). Ikerketa, Delawareko Zentro Korrekzionalean garatu zuen, zehazki, epe laburrean askatasun aukerarik eta haurrak zirenean, abusu fisiko eta sexuala jasan zituzten 125 presorekin, besteak beste, gizarte-trebetasun eskasak zituzten pertsonen markoan proposatu nahi izan zuelako AVP. Hala, AVP-k eskaintako espazioa izan zen parte-hartzaile askorentzat gizartearen aldeko portaerak ikusteko lehenengo espazioa, hots, elkar komunikatzeko, beste pertsona batengan konfiantza izateko edota trebetasun ezberdinak garatzeko lehenengo espazioa (Sloane, 2003:17). Horrek, aldi berean, ingurune seguru bat eskaini zuen esperientzia propioak partekatzeo eta, abiapuntu horretatik, euren arteko gatazkak konpontzeo teknika berriak garatzeko.

Egindako ikerketa guztiek, AVP motatako tailerrek oso azkar funtzionatzen dutela ikusarazten dute -kontuan hartuta 3 eguneko tailerrak izan ohi direla- indarkeriarako joera duten pertsonekin, zeinak txikitatik bortitzak izan diren. Shuford (2009: 3), batetik, AVP tailerrek biziraupena, arrazionaltasuna eta hitzezko komunikazioa posiblea egiten duten elementuak biltzeari esker portaera aldaketa tasa altuak direla argudiatzen du eta Sloane (2002: 21), bestetik, portaera aldaketa tasa altuak izatea harrigarria ez dela argudiatzen du, izan ere, gizartearen aurkako portaeretatik gizartearen aldeko portaeretara aldatzeo egin behar den “gauza bakarra” inflexio-puntu batera ailegatzea da, hots, lineala ez den eta, izan ere, egun gutxitan konfiantzarekin lortzen den puntura ailegatzearekin nahikoa delako. Izan ere, eta dirudienez, parte-hartzaileek besteekiko konexio-sentsazioa sentitzen dutenean, beren burua eta besteak modu desberdinean ikusten dituzte. Gainera, ikerketek erakutsi dute, aldaketa hori ez dela aldi baterako, baizik eta, neurri handi batean, mantendu egiten dela (Lamb eta Snodgrass, 2017:7).

Beste adibide bat Chico eta Paule (2005) AVP-ren markoan Gacaca Gortean⁹ - Ruandako genozidioa zela eta - aurrera eraman zuten ikerketa dugu. Bertan, senide asko hil zituzten eta AVP-ren bidez proposatutako pedagogien bidez, askok trauma auzipetzea lortu zuten. Ez da harrigarria Ruandako jendeak pentsatzea jendea berez gaiztoa zela eta barkamena keinu huts bat besterik ez zela. AVP-k isilean gonbidatu zituen parte-hartzaileak adiskidetze bat aurkitzera. Honen adibide testigantza hau dugu:

«Genozidioan, ama, aita eta senideak hil zituzten. Gure bizilagunek hil zituzten. Hiltzaileak gure lagunak ziren. Uste nuen inor ez zela ona. Beraz, besteengandik isolatu nintzen. Nire artzainak esan zidan AVP tailerrera joateko (...) botere eraldatzailearekin,

⁹ Gacacako Gortea 2001. urtean justizia sistema komunitarioan eta Ruandan egituratu zen gortea da. Hau, Ruandako genozidioa geroztik eratu zen, zeinetan 100 egun baino gutxiagotan Tutsi etniako 800.000 eta 1.000.0000 ruandar hil zituzten.

besteen onbidean sinesten hasten zara. Besteen ongian sinesten hasi nintzen. Libreki hitz egiten hasi nintzen» (Chico eta Paule, 2005).

Ruandako kasuaren bidez, trantsizio eta gatazka osteko testuinguruetan komunitateak indarkeriaren eraldaketarako iturri sakonak izan daitezkeela azaleratzen da, zeinak hasiera batean aipatutako mendeku zikloak eta «indarkeriak indarkeria sortzen duen» ideia baztertzen duten. Argi izan behar dugu, ordea, indarkeriaren eraldaketarako iturri izateak ez duela esan nahi komunitateak gerraosteko testuinguruan hautsita ez daudenik, baizik eta egoera hauts horri, AVP-ren bidez, komunitate-kideak beren bizitzetan komunitatea eraikitzeko moduak bilatu ditzaketela indarkeria alde batera utziz.

Indarkeria alde batera uzteak, alienazioa, beldurra eta isiltasuna alde batera uztea suposatzen du, batez ere, Ruandako genozidioaren osteko markoan kokatzen bagara, non pobreziak eta sistema zapaltzaileak komunitateetan egikaritzen zuen indarkeriak, borrokak sor zitzakeen. Hemen, freirear inspirazioko hezkuntza popularrarekin antzekotasunak ikus ditzakegu, azken finean, hezkuntza popularraren baitan alienazioaren, beldurraren eta isiltasunaren desagitea kokatzen da, aldi berean, humanizazioa, konfiantza eta itxaropena sustatzen direlarik (Vaughn, 2017: 59).

Bi ikerketek froga nabarmen ematen dizkigute indarkeriarekin lotutako aldaketak posibleak direla ikusteko, hots, edozein dela ere markoa AVP tailerrak, konfiantza sortzen eta ahotsak altxatzen ditu hausnarketaren bidez espazio seguruak sustatuz. Hala, mesfidantzatik konfiantzara igarotzea, bestearen aintzatespena lortzea eta indarkeriaz haratagoko errealitatea posiblea dela ikusten dugu. Gainera, AVP preso gazteagotan eta bigarren edo goi mailako hezkuntza duten presoetan eraginkorragoa dela, arraza edozein dela ere, frogatu da (Shuford, 2009:4). Izan ere, gazteen indarkeriazko zantzuak nerabezaro goiztiarrean garatzen dira (Gould, 2015) eta, beraz, indarkeriaren prebentzioak hobeto funtzionatzen du nerabezaroan (Lamb eta Snodgrass, 2017: 4).

Ildo honetan, Nigeriako gatazka armatuaren testuinguruan indarkeria eraldatzeko prozesu hau proposatzea posiblea litzatekelakoan nago. Ez soilik adin txikikoen gizarteratzea bideratzeko tresna gisa, baizik eta komunitate osoan konfiantza sortzera eta aniztasuna balioestera bideratutako partaidetza-ikuspegi gisa ere. Izan ere, indarkeriarik gabeko pedagogia batek, nire aburuz, bi modu garrantzitsutan hobetu ditzake justizia sozialeko errealitate batetik espero diren emaitzak. Lehenik eta behin, oinarriko suposizio, pertzepzio eta ulermenak desikasteko borroka emozionalekin lotutako ezagutza zailak irakatsiz eta bigarrenik, partaideek dituzten ezkutuko gatazka-iturriak aurkituz. Hori horrela, AVP-ak indarkeriaren ondorio metatzaileen aurkako antidoto gisa erabil daiteke (Wang, 2010: 3) eta justizia sozialari buruzko eredu konbentzional eta instituzionalizatuek sustatzen dituzten jokabideak identifikatzen lagun gaitzake, izan ere, hauek, konturatu gabe eta askotan, gizabanakoak eta taldeak elkarren aurka jartzen dituzte (Wang, 2013: 494).

Aipatu bezala, ez dago AVP-ren tailerren egiturak eta edukiak biltzen dituen eskuliburu bateraturik, hala, herrialde bakoitzak eskuliburu propioa garatzen du haren testuinguru kultural berezira egokituz. Nigeriako kasuan, ez dago eskulibururik eta orain arte

ez da esku sartzerik eman, ordea, AVP-Nigeria existitu existitzen da (AVP International, 2022). Existitze soil horretatik abiatuz, gatazka armatu batek errotzen dituen menderatze-mekanismoak desegiteko espazioa eraikitzeke aukera posiblea dela esaten digu, bai besteaz dugun pertzepzioa berriro definitzeko baita aniztasunak ongizate kolektiboan laguntzeko duen potentziala aitortzeko.

Hori horrela, egindako azterketak, gizarteratzea -prozesu sozial, politiko eta kultural bezala ulertzen dudana- ikuspuntu komunitario batetik egiteko garrantzia azaleratu du. Are gehiago, gizarteratzearen oinarri pedagogikoetan enfasia jartzearen beharra azpimarratu nahi izan dut, ikuspegi parte-hartzaile, dialogiko eta testuinguruan kokatutakoa izatearen irismena ondo ulertzeko helburuz. Adibidez, lanean aztertutako Nigeriako ipar ekialdean Boko Haramen haur soldadu ohien inguruko estigma zehatzak ulertzeko eta horiek sortzen duten bazterkeria dela eta haurrak berriro erradikalizatzeko arriskuaren areagotzea ekiditeko beharrezkoa da bertan proposatzen diren gizarteratzeak testuinguruan kokatutakoak izatea.

Egia da, AVP-ak Nigerian izan duen hedapena oso murrizta izan dela, ordea, Ruandako adibidearen bidez, hitzaren bidez pertsonak hurbiltzea ez ezik, “indarkeriak indarkeria erakartzen du” baieztapena alde batera uztea posiblea dela ikusi dugu. Horrek, alde batetik, bai maila pertsonalean baita talde mailan, *statu quo*-aren isiltasun erreproduzitzailerik behartuari kontrajartzen zaion isiltasun sendagarria bilatzea (Retolaza, 2019) eta bestetik, AVP-ren bidez gizarteratzea eta indarkeriaren erresilientzia indartzea posiblea dela erakutsi digu.

5 Ondorioak

Graça Machelek, Mozambikeko Hezkuntza eta Kultur ministroak, 1996. urtean burututako ikerketan «haurrak ikusle hutsak ez ezik, gatazken objektu» zirela adierazi zuen. Hogeita bost urte geroago, gatazka armatuen testuinguruan ematen den haurren parte hartzearen fenomenoak errotu dela ikus dezakegu. Honen adibide, aztergai izan den, ipar-ekialdeko Nigeriako kasua dugu, non Boko Haramen kontrako gatazka armatuak hamarkada bat baino gehiagok iraun duen. Gerra eszenatoki honen baitan, biztanleria zibila modu ezberdinetan inplikaturik eta kalteturik egoteaz gain, umeen parte hartzea nabarmena da: azkeneko urtean, 733 ume nigeriar erregistratu ziren haur soldadu moduan (A/78/845 – S/2020/525 txostena) eta horrek, Nigeria, gatazka armatua dela eta haurrek gehien sufritzen duten hogeita hamar herrialdeen artean kokatzea suposatzen du (UNICEF, 2020).

Nazioarteko zuzenbideak gatazka armatuetan adin txikikoak erabiltzeko debekua luzatu badu ere, estatu askotako segurtasun indarrek (adibidez, CJTF) eta gobernu kanpoko beste talde armatu batzuek (adibidez, Boko Haram) kolektibo sentikor eta babestua den adin txikikoak erabiltzen jarraitzen dute. Adin txikikoak errekrutatzeke debekuz gain, nazioarteko tresna juridikoek, estatuei, haur soldaduak gizarteratzeke ahalik eta baliabide gehien eskaintzeko betebeharra ezarri die, esate baterako, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren eta haurrek gatazka armatuetan parte hartzei buruzko Hautazko Protokoloaren bidez.

Era berean, gure azterketak, alde batetik, nazioarteko komunitateak estatuen betebeharrak kontrolatzeko mekanismorik ez duela eta bestetik, Nigeriako autoritateek, oraindik ere, haur soldaduen fenomenoari amaiera emateko borondateari, baliabideei eta ezagutzei dagokienez muga handiak dituztela azaleratu du. Haur soldaduak babesteko ezintasun hau, era berean, gizarteratze momentura zabaltzen da. Dakigunez, Nigeriako iparraldean, hiru deserradikalizazio eta gizarteratze programa indarrean daude. Ordea, hiru programa hauek esku artean dugun errealitateari heltzeko nahikoa ez direla ikusi dugu, besteak beste, programek euren artean koordinaziorik ez dutelako eta euren artean independenteak direlako. Aurrekoari gizarteratze erreal batek, bere horretan, dituen zailtasunak gehitu behar dizkiogu.

Gizarteratzea, prozesu konplexua, luzea eta alderdi askokoa da; zeinak aktore nazional eta lokalen gaitasun eraikitzailean eta jabegoan enfasia jarri beharko lukeen Nigeriako ipar ekialdean ematen den errealitateari heltzeko asmoz. Testuinguru honetan, gizarteratze komunitarioa aurkezten zaigu: komunitate batek, gatazka armatuan denbora luzez egondako haur soldaduak jasotzeko tresnak eskuratzea helburu duen prozesua.

Gizarteratze markoan, garrantzitsua da ulertzea, Boko Haram bezalako talde armatu batean egondako adin txikikoa, lehenengo, bizikidetasun arau eta gatazkak ebazteko modu ezberdinetara ohituta dagoela eta bigarren, pairatzen dituen ondorio fisiko, psikologiko eta sozialek gizarteratzean eragin handia dutela. Hori dela eta, komunitate lokalaren ahalduntzea, gizarteratze prozesuen erdigunean jartzea beharrezkoa da, besteak beste, espazio seguruak bideratzeko eta bizikidetasuna bermatzeko. Jakin badakigu, bestalde, DDR programak iraupen mugatukoak direla, beraz, errentagarritasun instituzionala lortzera bideratuta daudela. Badirudi, gainera, hierarkia nazionalak eta arraza-hierarkia globalak erreproduzitzeko tresna direla, non pertsonen ahalduntzea soilik eskura daitekeen nazioarteko zuzenbidearen bidez (Grewal, 2021: 72). Gizarteratzea, konpromezu legal eta politiko baten emaitza izan beharko luke eta ez gatazka armatuaren aurreko *status quo*-a berrezartzeko tresna.

Ildo honetan, gizarte eraldaketa bultzatzea beharrezkoa da eta horregatik, gizarteratze komunitarioa, Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektua (AVP) bezalako tresnekin batera lantzea beharrezko zein eraginkorra litzateke. Baina nola eragin dezake AVP haur soldaduen gizarteratzean Nigeriako ipar ekialdeko komunitate batean? Adin txikikoen esperientzien kapitalizazioaren eta horrek eraikitzen duen agentzia-ahalduntzearen bidez. Hau, AVP proiektuak planteatzen dituen tresnen bidez lor daiteke, zeintzuetan komunitateak, bere osotasunean, parte hartzen duen.

Esperientzia partekatzea ezin da ebaluazio psikosozial gabe ulertu -alegia, gizarteratze prozesu askotan ahaztu egiten den gako-, hots, haurren ongizatearekiko arreta, hezkuntzarako sarbidea, ahalduntzea eta gizarteratzea sustatzen duten prestakuntzak beharrezkoak dira lantzen ari garen testuinguruan. Hala, ebaluazio horren abiapuntua adin txikikoa, komunitatea eta ingurunea babestea izango dira; eta horretarako, orain arte pentsamendu hegemonikotik gizarteratze markoetan planteatu diren ikuspegi neoliberal eta militaristei aurre egitea nahitaezkoa da.

Ikusi bezala, Nigeriako gobernuak krisiari heltzeko hartzen duen ikuspegia militarra da oso. Horren aurrean, haur asko atxiloketa-prozesu batetik igarotzen dira eta prozesu horretan, laguntza zibilik gabe eta beren eskubideen aurka, militarren gehiegikeriak jasaten dituzte; eta hori ber hori da adin txikikoak, berriro ere, erradikalizatzeko arrazoi bat. Beraz, nola planteatu daiteke gizarteratze komunitario bat (i) lege islamikoa eta ohiturazkoa nazioartekoari gailentzen den eta (ii) adin txikikoen atxiloketak eta epaiketak legezkoak izan daitezen mekanismo juridikoak errespetatzen ez diren herrialde batean? Hemen, berriro ere, nazioarteko zuzenbidearen eraginkortasuna zalantzaragarria da. Eta GKE askok azalatu dituzten errealitate gordinek are gehiago irekitzen dute zalantzarako atea; batetik, adin txikikoak babesteko ezgaitasun argia dagoelako eta bestetik, gatazka osteko markoan, haurren eskubide sozial, kultural eta ekonomikoen aitortzearen fokua jartzen ez delako. Hori dela eta, legeak eskaintzen dizkigun tresnetatik haratagoko esparrua berrasmatzea beharrezkoa da.

Esparru horrek, zantzu emantzipatzailea izan behar du -legeak mugatzen duena, alegia- emaitza nahasgarriekin ez topatzeko, adibidez: komunitatera itzultzen diren eta estigmatizatutako gizarteratuak izan ez diren adin txikikoen errealitate krudelak, trauma auziperatzea lortu ez duten nesken kasuak ... Honetaz ohartzeak, haatik, ez du esan nahi legetik guztiz aldendu behar garenik, baizik eta bestelako erakunde formaletatik kanpo -komunitateetatik, esaterako- legeak aurreikusten ez dituen aurpegiak aurki ditzakegula eta horiek, zuzenbidea berrinterpretatzeko tresna izan daitezkeela estatuko erakunde arrazional eta formaletatik haratago ikusiz.

Nire aburuz, gizarteratzea, legearen mugetatik haratago joan behar da eta horren bide komunitatea bera da. Komunitateak, esperientziarekin konektatzen duelako eta horrek, giza esperientzien konplexutasuna eta aniztasuna egunerokotasunean txertatzea ahalbidetzen duelako. Egia da, esperientzia ez dela guztiz ulergarria edo ezagugarria, baina, ezagutza iturri bat osa dezake. Eta ezagutza iturri hori da, alegia, Boko Haram bezalako talde baten parte izan den adin txikikoaren trauma indibiduala, kolektibo nola bihurtu daitekeen ulertzeko modua. Horretarako, beraz, traumak identifikatu, landu eta politizatu behar dira: trauma eta memoriari kokaleku politiko konplexu eta zehaztua ematea nahitaezkoa delako (Ketola, 2021: 246). Hori aurrera eramateko, ordea, marko instituzionaletatik at dauden espazioak eraiki behar dira, adibidez, AVP-ak planteatzen dituen ipuingintza edo artearen bidezko espazio seguruak.

Espazio alternatibo hauek bat datoz agentziak adieraz ditzakeen forma anitzekin, esate baterako, isiltasunarekin -bizirik iraun ez dutenen istorioak gogoratzea eta kontatzea agentzia adierazpena da, eta hori den heinean, esperientzia da. Esperientziak eta oroitzapenak ez daudelako ezkutatzeko eta biltzeko, baizik eta ongi entzuteko eta lantzeko. Isiltasuna entzutearen garrantzia, baita mina, sufrimendua, haserrea eta beldurra entzutearenak ere. Aurrekoak, haur soldaduen eguneroko errealitateak dira. Horiei, indarkeria eta itzaropenik ezaren baldintzak gehitu behar dizkiogu, zeintzuek Nigeriako ipar-ekialdean bizitzak konfiguratu dituzten. AVP-ren ikuspegiak, momentuan momentuko bizitzeko eta ikasteko modu komunaren eskemari erantzuten die eta hori dela medio, prozesu

honek bidera dezakeen gizarteratzea ezin da etorkizunerako promesa gisa ikusi, ezta faseak eta ekintzak metatzearen ondoriozko egoera ideal gisa ere. Gizarteratzea, giza dimentsio guztietan eta hainbat mailatan egunero eraiki behar den prozesua baita (Bello, 2010), eta prozesu bezala, egunero indartu eta Nigeriako ipar-ekialdeko testuinguruan garatu daitekeen zerbait da. Indartze hori, AVP-k proposatzen dituen tresnen bidez aurrera eraman daitekeelarik. Ruandako kasuan ikusi bezala.

Ondorioei, genero dinamikak kontuan hartzeko garrantziarekin amaiera emango diegu. Boko Haram bezalako talde armatu baten baitan adin txikiko neskek jasaten duten sexu-indarkeriak, hauek diskriminatu eta deshumanitazten ditu. Eta, normalean, kasu hauek zigorrik gabe geratzen dira oso gutxitan salatzen direlako eta nesken rola, gatazka testuinguru horretan, biktima pasiboaren rolera mugatzen delako. Generoa diziplinaz gaindiko kategoria eta Nigeriako ipar ekialdean ematen den gatazka armatua aztertzeko tresna kritiko bezala ulertu behar dugu. Azken finean, generoak, gizarte bakoitzean sexu bakoitzari esleitzen zaizkion ezaugarri eta funtzio psikologiko eta soziokulturalak igortzen ditu. Hala, generoa haur soldaduen gizarteratzean erronka nagusi izaten jarraitzen du. Azken finean, gizarte patriarkal bati buruz ari gara, zeinaren egitura soziala Boko Haram markoaren baitan errepikatzen den eta neskak zaurgarritasun handiagoko subjektu diren (Lenoble eta Ahmed, 2021). Hori dela eta, hauen esperientzien partekatzea, gizarteratze markoan, lehenik, gizarte-ehunaren errotzea lausotuko lukete eta bigarrenik, subjektuen, bizitza-testuinguruaren eta helburuen intentzionalitatearen bidez komunitatearen kontzientzia politiko eta soziala indartuko lukete. Indartze prozesu horrek, elkar-elikatzea suposatuko lukeelarik, izan ere, norberaren prozesu indibiduala elikatzen duten egoera horietako bakoitza, komunitate kolektiboaren bizi-planak elikatzen dituzten elementuak dira.

Puntu honetan, galdera hau egin genezake: zergatik da hain zaila paradigma berriak txertatuz gizarteratze prozedura berriak eraikitzea, argi dagoenean orain arte planteatutako agertoki guztiek (kulturalak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, ekologikoak edo juridikoak) haur soldaduen, eta bereziki, neska haur soldaduen esperientzien murrizketari erantzuten dietela? Argi dago komunitateek prozesu parte-hartzaileen bidez gerraosteko testuinguruetan bakea berrezartzeko edo, gutxienez, indarkeriarik gabe hura eraldatzeko boterea dutela. Jarrera kontziente eta erne batetik, indarkeriarik gabeko bidea posiblea da, betiere, norberarekiko zein besteekiko errespetuan eta zaintzan oinarritutako eta absentzien soziologiatik ikusezintasun-logikei aurre egiteko proposatutako programak badira. Azken finean, eta lanean azaleratu bezala, Indarkeriaren aurkako Alternatibak Proiektuak bezalako ikuspegi etiko eta politikoaren bidez, posiblea da herrien historiaren esperientzien gaineko hausnarketa prozesuetatik abiatuta bakea eraikitzeko alternatiba metodoak konfiguratzeko. Beharrezkoa da irudimen utopikoaren bidez adin txikikoen gizarteratzea erraztuko duen zerumuga berri bat diseinatzea eta paradigma berrien aplikagarritasunean lantzen hastea eta horretarako, AVP-az, hots, botere eraldaketaren eta konexioaren bidezko komunitate-eraikuntza bultzatzen duen proiektuaz balia gaitzke, izan ere, prozesu komunitarioek barre partekatuari espazioa ematen diete eta horrek, aldi berean, gizarteratzeko eta sendatzeko aukerari, hots, historia berreraikitze prozesuari.

6 Bibliografia

- ADESOJI, A. (2011): «Between Maitatsine and Boko Haram: Islamic fundamentalism and the response of the Nigerian state», *Africa Today*, 57, 98-119
- AHMED, S. (2011): *Seeking to dissuade: does the international legal framework offer enough protection to child soldiers?* Doktore tesia. Central European University of Hungary
- Alternatives to Violence Project International, (2006): «Epistle to the Worldwide AVP Family» eskuragarri: <http://avpinternational.org/2006Epistle.pdf> [2022/09/14]
- Alternatives to Violence Project International, (2022): <<https://avp.international>> [2022/09/14]
- AMUSAN, L., eta U. EJOKE (2017): «The psychological trauma inflicted by the Boko Haram insurgency in northeastern Nigeria », *Aggression and violent behavior*, 1-36, eskuragarri hemen: < <https://doi.org/10.1016/j.avb.2017.07.001>> 52-59
- ARELLANO VELASCO, M. (2009): *Uso y participación de niños en conflictos armados*. Doktore tesia. Granadako Unibertsitatea <0-hera.ugr.es.adrastea.ugr.es>
- BÁCARES, C. (2017): «Los derechos de los niños, niñas y adolescentes» *Infancias Imágenes*, 18 (1), 51-67 [on-line] eskuragarri hemen: <<<https://www.aacademica.org/camilo.bacares.jara/15.pdf>> [2022/07/02]
- BAIN, W. (2006): «In praise of folly: international administration and the corruption of humanity» *International affairs*, 82(3), 525-538
- BARNETT, M., KIM, O'DONNELL eta SITE (2007): «Peacebuilding: What is in a name?», *Global Governance*, 13
- BELLO, M. (2010). *Introducción, contexto y perspectivas sobre acción sin daño y construcción de paz*. Programa de Iniciativas Universitarias para la Paz y la Convivencia. Bogotá: Universidad Nacional de Colombia. [On-line], eskuragarri: <http://www.bivipas.unal.edu.co/handle/10720/661> [2021/02/03]
- BERENTS, H., eta MCEVOY-LEVY, S. (2015): «Theorising youth and everyday peace (building)», *Peacebuilding*, 3(2), 115-125
- BREEN, C (2007): «When is a child not a child? Child soldiers in international law», *Human Rights Review*, 8, eskuragarri hemen: <<https://doi.org/10.1007/BF02881667>> 71-103
- BRETT, R. eta MCCALLIN, M. (1996): «*The invisible soldiers*», *Swedish Save the Children*, Stockholm
- BRETT, R., eta I. SPECHT (2004): «Young soldiers: why they choose to fight», Geneva: International Labour Office, Lynne Rienner Publishers eskuragarri hemen: < https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_emp/---emp_ent/---ifp_crisis/documents/publication/wcms_116562.pdf>
- BROUNÉUS, K. (2008): «Truth-telling as talking cure? Insecurity and retraumatization in the Rwandan Gacaca», *Security Dialogues*, 39, eskuragarri: <10.1177/0967010607086823> 55-76
- BUKARTI, A. eta BRYSON, R. (2019): «Dealing With Boko Haram Defectors in the Lake Chad Basin: Lessons From Nigeria.», *Tony Blair Institute for Global Change*,

- eskuragarri < <https://institute.global/sites/default/files/articles/Dealing-With-Boko-Haram-Defectors-in-the-Lake-Chad-Basin-Lessons-From-Nigeria-.pdf>>
- CAVARERO, A., (1997): «Relating Narratives: Storytelling and Selfhood », Routledge
- CHICO, L. eta PAULE, U. (2005): «Peace cannot stay in small places: Lessons from alternatives to violence workshops with Gacaca judges, May 2004–March 2005», *Friends Peace House Rwanda and African Great Lakes Initiative*; eskuragarri: <http://aglifpt.org/publications/articles/avp/pdf/peaceplaces.pdf>
- COCKBURN, C., eta D. ZARKOV (2002): «The Postwar Moment: Militaries, Masculinities and International Peacekeeping», *London Lawrence & Wishart*, 103-121
- DIXON, A. (2021): «Derry girls and the politics of the everyday: theorising for a more youth-inclusive approach to peacebuilding», *Peacebuilding*, eskuragarri: < 10.1080/21647259.2021.1930947>
- DUDENHOEFER, A. (2016): « Understanding the Recruitment of Child Soldiers in Africa», *African Center for the Constructive Resolution of Disputes (ACCORD)*, eskuragarri: < <http://www.accord.org.za/conflict-trends/understanding-recruitment-child-soldiers-africa/>>
- DUTHIE, R., eta I. SPECHT (2010): « DDR, Transitional Justice, and the Reintegration of Former Child Combatants», *International Center for Transitional Justice*, 1-4
- ECHEVERRÍA, C. (2014): «El desafío terrorista de Boko Haram en Nigeria», *Instituto Español de Estudio Estratégicos*, 1, 1-17
- Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea (CEAR): 2015, eskuragarri: <<https://www.cear.es/wp-content/uploads/2013/08/Boko-Haram.2015.pdf>> [2022/06/02]
- Escola de Cultura de Pau: *Alerta 2019! Informe sobre conflictos, derechos humanos y construcción de paz*. Barcelona: Icaria, 2019.
- Escola de Cultura de Pau: *Alerta 2021! Informe sobre conflictos, derechos humanos y construcción de paz*. Barcelona: Icaria, 2021.
- Espainiako informazio diplomatikoko bulegoa: 2022, eskuragarri: <https://www.exteriores.gob.es/Documents/FichasPais/NIGERIA_FICHA%20PAIS.pdf> [2022/08/08]
- FREIRE, P. (1972): «*Pedagogía del oprimido*», Siglo XXI, Madrid.
- GALTUNG, J. (1990): «Cultural Violence» *Journal of Peace Research*, 27 (3): 291-305; eskuragarri: 10.1177/0022343390027003005
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (PNUD): *Blame It on the War? The Gender Dimensions of Violence in Disarmament, Demobilization and Reintegration* (2012), eskuragarri: <https://eldis.org/document/A66476>
- GARCÍA, D. (2015): «Boko Haram», *US Institute of Peace*, 308, 1-16
- GISLESEN, K. (2006): «A childhood lost? The challenges of successful disarmament, demobilisation and reintegration of child soldiers: The case of West Africa» *Norwegian Institute of International Affairs*, 712
- GOMMEN, T., eta O. ESOMCHI (2017): «Nigeria: Breeding Future Terrorists. A Study of Almajiri of Northern Nigeria and Islamist Militia», London

- GOURLEY, S. (2012): «Linkages between Boko Haram and Al Qaeda: A potential deadly synergy», *Global Security Studies*, 3, 1-14
- GREWAL, K. (2021): «Feminist responses to conflict: within, against, and beyond the law», *Routledge handbook of feminist peace research*, London and New York, 70-79
- GREY, R. (2014): «Sexual Violence against Child Soldiers. The limits and potential of International Criminal Law» *International Feminist Journal of Politics* 4, vol 16, eskuragarri hemen: < <https://doi.org/10.1080/14616742.2014.955964>> 601-621
- HACKLAND, T. (2007): «External Evaluation: Phaphama Initiatives' Alternatives to Violence Project at Leeuwkop Correctional Centre», *Ikanyezi Initiative*
- HAER, R. (2017): «The study of child soldiering: issues and consequences for DDR implementation», *Third World Quarterly*, 38, eskuragarri hemen: < [10.1080/01436597.2016.1166946](https://doi.org/10.1080/01436597.2016.1166946)> 450-466
- Haur Soldaduen Erabilera Geldiarazteko Koalizioa (UNICEF): Guía del protocolo facultativo sobre la participación de niños y niñas en los conflictos armados, 2004ko maiatza, eskuragarri: <https://www.refworld.org/es/pdfid/5c6af25f4.pdf> [2020/06/16]
- Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza (UNICEF): Cada 12 de febrero se conmemora el Día Internacional contra el Uso de Niños Soldado (2020), eskuragarri: <https://www.unicef.es/ninos-soldado> [2022/07/18]
- Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza (UNICEF): In Nigeria, a new start for children who survived abductions (2019), eskuragarri: <https://www.unicef.org/nigeria/stories/nigeria-new-start-children-who-survived-abductions> [2022/07/11]
- Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza (UNICEF): Progreso para la infancia: más allá de los promedios (2015eko ekaina), eskuragarri: https://www.unicef.org/media/50876/file/Progress_for_Children-SP.pdf [2022/03/18]
- Human Rights Watch (2019): They Didn't Know if I Was Alive or Dead'. Military Detention of Children for Suspected Boko Haram Involvement in Northeast Nigeria, eskuragarri: https://www.hrw.org/sites/default/files/report_pdf/Nigeria_0919_web.pdf
- Human Rights Watch: In Nigeria, a new start for children who survived abductions (2019), eskuragarri: <https://www.unicef.org/nigeria/stories/nigeria-new-start-children-who-survived-abductions> [2022/07/11]
- HUTCHISON, E. (2016): «*Affective communities in world politics*». Cambridge University Press
- KETOLA, H. (2021): «Trauma, memory and peacebuilding», *Routledge handbook of feminist peace research*, London and New York, 240-249
- KNIGHT, M., ETA ÖZERDEM, A. (2004): «Guns, camps and cash: Disarmament, demobilization and reinsertion of former combatants in transitions from war to peace» *Journal of Peace Research*, 41(4), 499-516
- LAFAYETTE, E. (2013): «The prosecution of child soldiers: Balancing accountability with justice», *Syracuse L. Rev.*, 63, 297

- LAMB, S., ETA SNODGRASS, L. (2017): «A nonviolent pedagogical approach for life orientation teacher development: The alternatives to violence project», *Educational research for social change*, 6(2), 1-15
- Le Monde Afrique: Le Nigeria, «bombe à retardement» démographique, 2019, eskuragarri: <https://www.lemonde.fr/afrique/article/2019/01/30/le-nigeria-bombe-a-retardement-demographique_5416621_3212.html> [2022/07/20]
- LEE, A. (2009): «Understanding and Addressing the Phenomenon of ‘Child Soldiers’: The Gap between the Global Humanitarian Discourse and the Local Understandings and Experiences of Young People’s Military Recruitment», *Refugee Studies Center*, 52, eskuragarri hemen: <https://documentation.lastradinternational.org/lisidocs/ref_studies_09_1109.pdf> 1-45
- LENOBLE, M., eta O. AHMED (2021): «Menores asociados a grupos armados en el Noreste de Nigeria», *Cuadernos IECAH*, 19. Madrid: Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria, 1-30
- MACPHERSON, N., U. MERCY, C. ARUA eta M. OTU (2018): «The use of women and children in suicide bombing by the Boko Haram terrorist Group in Nigeria », *Aggression and violent behavior*, 42, eskuragarri: <<https://doi.org/10.1016/j.avb.2018.07.004>> 35-42
- MACPHERSON, N., U. MERCY, C. ARUA eta M. OTU (2018): «The use of women and children in suicide bombing by the Boko Haram terrorist Group in Nigeria », *Aggression and violent behavior*, 42, eskuragarri: <<https://doi.org/10.1016/j.avb.2018.07.004>> 35-42
- MAIANGWANA, B. eta AMAO, O. (2015): «Daughters, Brides, and Supporters of the Jihad’: Revisiting the Gender-Based Atrocities of Boko Haram in Nigeria», *African Renaissance*, JOUR, 12, 117-144
- MARTOS, R. (2014): «Niños soldado: una aproximación global y de género a un fenómeno complejo» *Cuadernos de Investigación*, Universidad Complutense de Madrid eskuragarri hemen: <https://politicasysociologia.ucm.es/data/cont/docs/21-2016-12-21-CI14_W_Alba%20Martos.pdf>
- MATFESS, H (2017): «Women and the War on Boko Haram: Wives, Weapons, Witnesses», *Zed Books Ltd*
- MCEVOY-LEVY, S. (2015): «Disarming ‘Militainment’: reading peace and resistance», *Peacebuilding*, 3(2), 200-217
- MCMULLIN, J. (2013): «Integration or separation? The stigmatisation of ex-combatants after war», *Review of international studies*, 39(2), 385-414
- MERINO, K. (2018): *Más allá de la experiencia de los niños soldado: ¿Existe un derecho de reinserción y reintegración para ellos?* Doktore tesia. Alcalako Unibertsitatea <<http://hdl.handle.net/10017/38907>>
- MERTUS, J. (2004): «Shouting from the bottom of the well: the impact of international trials for wartime rape on women’s agency », *International feminist Journal of Politics*, 6, 110-128
- MOHAMMED, K. (2014): «The Message and Methods of Boko Haram» *Boko Haram: Islamism, Politics, Security and the State in Nigeria*, Nigeria: French Institute for

- Research in Africa, eskuragarri: <https://books.openedition.org/ifra/1753?lang=es> 9-32
- MOHANTY, C. (1994): « On race and voice: challenges for liberal education in the 1990s», *Between Borders: Pedagogy and the Politics of Cultural Studies*. Routledge, London and New York, 145-166
- MORENO MENA, J. (1996): «Niños trabajadores agrícolas en Baja California» *Estudios Fronterizos*, 37 (38), 61-84 [on-line] eskuragarri hemen: <<http://ref.uabc.mx/ojs/index.php/ref/article/view/320>> [2020/12/05].
- MUJICA, I., eta I. zirion (2019): «Gatazka armatuak, bakea eta garapena», Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, 13
- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioa, 1951ko uztailaren 28, 189. seriea, eskuragarri: <https://www.acnur.org/5b0766944.pdf>
- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 1948ko abenduaren 10ean, 217 A (III) ebazpena, eskuragarri: https://www.ohchr.org/EN/UDHR/Documents/UDHR_Translations/bsq.pdf [2022/03/28]
- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Haurren Eskubideen Hitzarmena, 1989ko azaroaren 20, eskuragarri: <https://www.un.org/es/events/childrenday/pdf/derechos.pdf> 20 [2022/06/30]
- Nazio Batuak, National Population Commission of Nigeria: Violence against children in Nigeria. Findings from a national survey, 2014, eskuragarri: <https://www.unicef.org/nigeria/media/1586/le/Nigeria-violence-against-children-national-survey.pdf>
- Nazio Batuen Erakundeak: La violencia oblige a más de 1 millón de niños a dejar la escuela (2022), eskuragarri: <https://www.unicef.es/noticia/nigeria-la-violencia-obliga-mas-de-1-millon-de-ninos-dejar-la-escuela> [2022/07/09]
- Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren S/2015/203 Txostena: Gatazka armatuekin lotutako indarkeria sexuala, 2015eko martxoaren 23, eskuragarri: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2015/10064.pdf> [2022/06/8]
- Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren S/2020/525 Txostena: Haurrak eta gatazka armatuak, 2020ko ekainaren 9, eskuragarri: <https://reliefweb.int/report/world/children-and-armed-conflict-report-secretary-general-a74845-s2020525> [2022/09/1]
- Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren S/2020/652 Txostena: Nigeriako gatazka armatuaren harira ateratako ondorioak, 2020ko abenduaren 31, eskuragarri: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N20/172/70/PDF/N2017270.pdf?OpenElement> [2022/03/28]
- Nazioarteko Amnistia (AI): Niñas y niños soldado, vulnerabilidades ocultas 2019ko otsailak 12, eskuragarri: <https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/blog/historia/articulo/ninas-y-ninos-soldados-vulnerabilidades-ocultas-1-1/>

- Nigerian Tribune: Boko Haram Terrorists Not Recruited Into Military (2020), eskuragarri: <https://tribuneonline.com/boko-haram-terrorists-not-recruited-into-military-%E2%80%95-oloni-sakin/>
- ONAPAJO, H., eta U. UZODIKE (2012): «Boko Haram terrorism in Nigeria: Man, the state, and the International System», *African Security Review*, 21, 24-39
- ONOUHA, F., eta S. OYEWOLE (2018): «Anatomy of Boko Haram in Nigeria», ALJAZEERA Centre for Studies, Mecca
- ÖZERDEM, A., eta S. PODDER (2015): «Youth in Conflict and Peacebuilding Mobilization, Reintegration and Reconciliation», *Rethinking Political Violence Series*, London
- PARASHAR, S. eta C. ORJUELA (2021): «Famines: ‘Slow’ violence and gendered memorialisation», *Routledge handbook of feminist peace research*, London and New York, 409-419
- PAULETTO, E., eta PATEL, P. (2010): «Challenging child soldier DDR processes and policies in the Eastern Democratic Republic of Congo» *Journal of Peace, Conflict and Development*, 16, 35-57.
- PODDER, S. (2015): «The power in-between: youth’s subaltern agency and the post-conflict everyday», *Peacebuilding*, 3, eskuragarri: < <http://dx.doi.org/10.1080/21647259.2014.973664>> 36-57
- PRUITT, L. (2015): «Gendering the study of children and youth in peacebuilding », *Peacebuilding*, 3, eskuragarri: <<http://dx.doi.org/10.1080/21647259.2015.1052630>> 157-170
- RETOLAZA, I. (2019): «La generación de entornos dialógicos», *Diálogo en sociedades polarizadas*, 36: 30-34 eskuragarri: <http://www.icip-perlapau.cat/numero36/pdf-esp/Per-la-Pau-n36-ESP.pdf>
- REYES, V. (2017): «Children in war: Answers from International Law to the crimes of recruitment of child soldiers and sexual violence» *Revistas Ius et veritas*, 42-62
- RUBIN, G. (1975): «The Traffic in Women: Notes on the 'Political Economy' of Sex», Rayna R. Reiter (argitz.) *Towards an antropology of Women*, Monthly Review Press, Nueva York/Londres, 157-210
- RUIZ BRAVO, P. (1999): «Una aproximación al concepto de género», *Sobre derecho y discriminación*, Lima: Pontificia Universidad Católica del Perú Defensoría del Pueblo
- SAID, E. (1997): «Culture and Imperialism», Vintage, New York
- SALMÓN, E., eta C. BLANCO (2012): «El derecho al debido proceso en la jurisprudencia de la Corte Interamericana de Derechos Humanos», Lima: Instituto de Democracia y Derechos Humanos de la Pontificia Universidad Católica del Perú y Cooperación Alemana al Desarrollo Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria eskuragarri hemen: <<https://repositorio.pucp.edu.pe/index/bitstream/handle/123456789/111919/2012-El%20derecho%20al%20debido%20proceso%20en%20la%20jurisprudencia%20de%20la%20Corte%20Interamericana%20de%20Derechos%20Humanos.pdf?sequence=1&isAllowed=y>>

- SETTY, S. (2011): «What's in a name? How nations define terrorism ten years after 9/11», University of Pennsylvania Journal of International Law, eskuragarri hemen: <<https://scholarship.law.upenn.edu/jil/vol33/iss1/1>>
- SHIRAZI, R. (2011): «When projects of 'empowerment' don't liberate: Locating agency in a 'postcolonial' peace education», *Journal of Peace Education*, 8(3), 277-294
- SHUFORD, J. (2001): «Holistic Training in the Alternatives to Violence Project», *Conciliation Quarterly*, 20 [on-line] eskuragarri hemen: <<http://teamcrs.org/MCC%20Article%202001.htm>> [2022/09/14]
- SHUFORD, J. (2009): «AVP: An instrument of peace», *Friends Journal* [on-line] eskuragarri hemen: <<https://www.friendsjournal.org/avp-instrument-peace/>> [2022/09/14]
- SHUFORD, J. (2009): «AVP: An instrument of peace», *Friends Journal*, eskuragarri: <https://www.friendsjournal.org/avp-instrument-peace/>
- SHURIYE, A., eta S. HUUD (2013): «Global Challenge of Manual Suapicion: Boko Haram Uprising in Nigeria», *American International Journal of Contemporary Research*, 3, 105-111
- SINGER, P. (2015): «*Children at War*», University of California Press.
- SINGH, S. (2021): «Gendering education for peace: critical perspectives», *Routledge handbook of feminist peace research*, London and New York, 80-88
- SLOANE, S. (2002): «A Study of the Effectiveness of Alternatives to Violence Workshops in a Prison System», *St. Paul, MN: AVP/USA*, eskuragarri: <<http://www.sfu.ca/cfrj/fulltext/sloane.pdf>>
- SLOANE, S. (2003): «An Investigation into the Operative Mechanisms of Alternaitve to Violence Training in a Prison», Cleveland: Case Western Reserve University
- SNOWDON, L. (2016): «Girl Child Soldiers: The relevance of gender in preventing and responding to the use of child soldiers», Western University eskuragarri hemen: The Institute for Economics and Peace: Global Peace Index, 2015, eskuragarri: <https://www.economicsandpeace.org/wp-content/uploads/2015/06/Global-Peace-Index-Report-2015_0.pdf> [2022/07/8]
- SUNDAY, O (2020): «Nigeria's controversial Boko Haram Amnesty», *Insideover*, 25, eskuragarri: <<https://www.insideover.com/terrorism/nigerias-contro-versial-boko-haram-amnesty.html>>
- Swiss Info: Cientos de detenidos huyen de una cárcel en Nigeria tras un ataque de Boko Haram (2022), eskuragarri: <https://www.swissinfo.ch/spa/cientos-de-detenedos-huyen-de-una-cárcel-en-nigeria-tras-ataque-de-boko-haram/47732134>
- The Guardian Nigeria: French family seized in Cameroon by suspected Boko Haram Islamists freed (2013), eskuragarri: <https://www.theguardian.com/world/2013/apr/19/french-family-kidnapped-cameroon-freed>
- The Guardian Nigeria: The Nigerian child and national policies (2018), eskuragarri: <https://guardian.ng/opi-nion/the-nigerian-child-and-national-policies/>
- TORREGROSA, F., D. GARRIGA, R. LÓPEZ, N. SANCHEZ eta A. GARCÍA (2016): «Boko Haram: análisis del fenómeno terrorista en Nigeria», *Revist Criminalidad* 58, 67-79
- TORRES, A. (2011): «*Educación popular, trayectoria y actualidad*», Caracas.

- TRUJILLO, A. eta GÓMEZ, L. (2018): «Educación popular y educación propia: ¿alternativas pedagógicas para la construcción de paz en Colombia?», *Revista Departamento de Ciencia Política*, 8-9: 53-74; eskuragarri: <https://revistas.unal.edu.co/index.php/forum/article/view/68512>
- VAUGHN, J. (2017): «Building peace, solidarity and hope in Africa through popular education», *International issues in adult education*, 22: 58-70; eskuragarri: https://link.springer.com/chapter/10.1007%2F978-94-6300-923-2_6
- VILLAGRASA, J., (2014): «Derechos de la infancia y la adolescencia: hacia un sistema legal», *Anales de la Cátedra Francisco Suárez*, 49, eskuragarri hemen: < <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5239482>> 17-41
- VILLASATE, J. (2011): «La protección del niño en los conflictos armados por el Derecho Internacional Humanitario» *Anuario de la facultad de derecho*, Universidad Autónoma de Madrid, 217-240
- WALKER, A. (2012): « What is Boko Haram? », *US Institute of Peace*, 308, 1-16
- WALRATH, C. (2001): «Evaluation of an inmate-run alternatives to violence project: The impact of inmate-to-inmate intervention» *Journal of Interpersonal Violence*, 16(7), 697-711
- WALWRATH, C. (2001): «Evaluation of an Inmate-Run Alternatives to Violence Project. The Impact of Inmate-to-Inmate Intervention», *Journal of Interpersonal Violence*, 16, 697-711
- WANG, H. (2010): «A zero space of nonviolence», *Journal of Curriculum Theorizing*, 26, 1-8
- WANG, H. (2013): «A nonviolent approach to social justice education», *Journal of the American Studies Association*, 49, 485-503
- WARD, S (2012): «Criminalizing the Victim: Why the Legal Community Must Fight to Ensure that Child Soldier Victims Are Not Prosecuted as War Criminals», *Geo Legal Ethics*, 25, 821-835
- WESSELS, M. (1998): «Children, Armed Conflict, and Peace», *Journal of Peace Research*, 35, 635-646
- WILLIAMSON, C. (2018): «Rwanda after Genocide: Gender, Identity and Post-Traumatic Growth», Cambridge University Press, Cambridge
- YUVARAJ, J., (2016): «When Does a Child ‘Participate Actively in Hostilities’ under the Rome Statute? Protecting Children from Use in Hostilities after Lubanga», *Utrecht Journal of International and European Law* 69, vol. 32, 69-93
- ZENN, J. eta PEARSON, E. (2014): «Boko Haram, the Islamic State, and the Surge in Female Abductions in Southeastern Niger», *International Centre for Counter Terrorism*, La Hague, eskuragarri: <https://icct.nl/app/uploads/2021/02/Pearson-And-Zenn-research-paper.pdf>
- ZENN, J., A. BARKINDO, eta N. HERAS (2013): «The Ideological Evolution of Boko Haram in Nigeria. Merging Local Salafism and International Jihadism», *RUSI Journal*, 99-117
- zirion, I. (2012): «Los procesos de desarme, desmovilización y reintegración de excombatientes desde la perspectiva de género» Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, 58

zirion, I. (2017a): «Características de los conflictos armados en África Subsahariana y su incidencia en las violaciones de derechos humanos», *Donostiako Giza Eskubideei Buruzko Ikastaroen Urtekaria*, XVI, Thomson-Reuters Aranzadi, Bilbo, 351-390